

TOKIKOM

2016ko uztaila | 161. zenbakia

aita-ama!

Idizkaria



Ana Apika

Irribarreen
sortzailea

AMAIA OLABARRIETA LARRABETZUKO JAIAK LEZAMAKO JAIAK LAGATZU EGUNA



aek

euskara praktikoa

%100 AFEKTIBOA



Txorierriko AEK euskaltegia

Euskara ikasi, praktikatu
Herrian bertan ikasteko aukera
Azterketak prestatu EGA, A1, A2, B1, B2 eta C1.

Matrikula zabalik irailaren 30 arte

Txepetxa euskaltegia: Gorbea kalea 5 behea, 48160. Derio-Bizkaia (Anbulategia ondoan gaude)

94 454 39 67 / 607 598 794 · txepetxa@aek.eus

DIRU-LAGUNTZAK

EUSKO JAURLARITZA:
maila egiaztatuz gero.

BIZKAIKO ALDUNDIA:
deskontu-bonuak.

Txorierriko Mankomunitatea
eta Larrabetzuko Udala
(beka gehigarria)

Eman izena



Euskara eskolak



Mintzapraktika



Barnetegiak



On line



Autoikaskuntza



Normalizazio planak



Itzulpenak-Zuzenketak



BIZU!
aldizkaria

• HABEK homologatutako euskaltegiak

• Azterketa ofizialak prestatzeko ikastaroak



673 200 100 · 946 464 000 · www.aek.eus



-  **4** Eritxiak
-  **5** Laburrak eta albisteak
-  **11** Irudietan... Eduardo Delgado, jakien intxixua
-  **12** Amaia Olabarrieta, futbolari ohia
-  **14** Gaztea eta... Xabier García de Kortazar, bidaiaria
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Ana Apika, aktorea
-  **22** Larrabetzuko jaiak
-  **26** Lezamako jaiak
-  **30** Taldeak/Elkartek... Txorierri Basketland SK
-  **32** Lagatzu Eguna
-  **34** German Bustinza lezamarra, 100 urte
-  **35** Aikorriketa... Udarako liburua
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda



22 Larrabetzu eta Lezamako jaiak



32 Lagatzu Eguna-Euskal jaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral



diruz lagundutako aldizkaria

aikor!
txorierriko aldizkaria

Argitaratzailea: TOTOAN,
Txorierriko Euskara Elkarten
Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan,
Arrekileri, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com /
www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea
eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Imanol Alvarez, Guiomar Gordon, Idoia Andrés, Gaizka
Peñafiel, IZAE argazkitza elkarteak, Jon Goikouria Larrabeiti, Oihana
Astobieta eta Jose Angel Mentxaka

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322



AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.

Duela ez asko, ikastaro bateko material batzuk irakurtzen nabilela, erdibideko aukera zein modu esplizituan azaltzen zen ikustek harritu ninduen. Eta zer demontre da erdibideko aukera? Gaia edozein delarik ere, futbolarien soldata, nekazaritza ekologikoa edo jaungoikoaren existentzia bera, muturren artean kokatzen den posizioaz ari naiz. Gai gehienetan errepikatzen den eskema da, iritzi bat, kontra-koa, eta biak uztartuz erdibideko posizio bat jasotzen dituen.

Esperientziari eta perspektiba historikoari so eginez gero, esango nuke erdibidea irtenbideen bilaketaren ohiko abiapuntutzat hartu beharko genukeela. Modu horretan, indarrean dagoenaren kontrako ideia ordezkakotako gure hausnarketaren abiapuntu gisa, kasurik onenean eta hausnarketa bat dagoela suposatuz. Baina ideia hau ez da berria, ezta gutxiago ere nirea. Aristoteles handiak, jada, orekaren onurei buruz hitz egin zuen K.a. IV. mendean. Hogeita bost

Oreka

mende geroago, ordea, etxera mozkor heltzen denaren gisa gabiltza oraindik, oreka topatu ezinik horma batetik bestera pasilloa zeharkatzen.

Baina zein da guzti honen isla egunerokoan? Zertaz ari naiz? Eremu pedagogikoan, eskola zaharreko zorrotzasunaren eta egun mugarik ez duten haurren artean dagoen alde izugarriaz. Eremu sozialean, emakumea zapaldu duen gizarte baten eta gona daramaten semaforo panpinetan dirutza bat gastatzen duen gizarte baten arteko aldeaz. Eta honela, eremutik eremura, indibidualetik kolektibora, beste hamar mila kasuz.

Guzti honekin ez dut inolaz ere esan nahi egia, soluzioa, zuzena...edo nahi duzuen bezala deituko dugun zera hori erdibidean dagoenik beti. Ezta gutxiago ere. Are gehiago, mesfidatu beren burua moderatu gisa aurkeztu dutenez. Mesfidatu ere, Salomon erregearen istorioan



IMANOL ALVAREZ
(Filosofia irakaslea)

bezala, ez zuretzat ez niretzat, eskatzen dutenez. Kolore guztietako erabakiak hartu beharko ditugu bizitza honetan, baita muturrekoak ere. Baina aztertu horretarako kasuan kasuan, zintzotasunez eta ingurukoei entzunez, baina besteek pentsatuko dutenaren beldurretik aske. Eta kon-tuan hartu posizio baten porrotak ez duela kontrakoaren arrakasta bermatzen. Ez dago formula magikorik, baina hormen kontra hainbestetan ez jotzen lagundu ahal digulakoan nago.

Zer irudituko litzaioke okin bati, bezero batek ogia garestiegi dagoela esan ostean, prezioari buruz tratuan hasiko balitzaio? Bada, egoera hau egunero gertatzen da, eta artearekin egunero lan egiten dugunok ondo baino hobeto ezagutzen dugu. Gure lana gutxietsita dago, beharbada gure produktu eta zerbitzuen ukiezintasunagatik, edota merkaturiko intrusismo itzelagatik.

Ezkonduko zara? Zure argazki-albuma egiteko, argazkiak ateratzeaz gain lan itzela dauka argazki kameraren tipoak: jaiegunetan lan egin behar du, makina bat bidaia egin behar ditu (tokiak lokalizatzeke), bere materiale-tan eta heziketan inbertitu, argazkiak

Kultura suntsitzaileentzat, bihotzez



JON GOIKOURIA LARRABEITI
(Kazetaria)

egin, horiek editatu eta, albuma nahi izatekotan, maketazio lan astuna egin behar du, horrek guzti horrek dakarren buruhausterekin. Baina ezkontza egunean "gure kontura aberastuko den argazkilaria bakarrik ikusten dugu guk, lanean".

Zapatariarengana noan bakoitzean, adostutako prezioa arrazoizko iruditzen bazait, eskatutakoa ordaintzen diot; ez baina zapata-gintzan aditua. Inolaz ere ez diot bere lana gutxietsiko, ezta tratuan hasiko ere.

...Eta zuk?

Alaia
fruta-denda

Etkez etxeko zerbitzua
Bertoko produktuak

Taller, 5
48170 Zamudio
94 651 05 95

HARATEGIA
ALBERTO

Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

ama
taberna

Leizaola plaza, 7 - behea (ZAMUDIO)
94 655 93 69

Motorraren Eguna, irailean Zamudion

Zamudio Racing elkarteak bere eguna ospatuko du Irailean. Txus Jaio eta Igor Urien auto-gidariak hitzaldia eskainiko dute irailean 9an, 20:00etan, eta ondoren, Garai Racing team taldea aurkeztuko da jendaurrean. Hori Ibon Garai zamudioztarrak eta Aitor Bergara derioztarrak osatzen dute. More than rock taldea 22:00etan igoko da eszenatokira. Ekitaldiak Fernan eta Natxo tabernen arteko plazan egingo dira.

Egun nagusia irailean 10a izango da. Egun horretarako, eta 10:00etatik aurrera, hainbat ekintza antolatutuzte. Autoak Kultur Etxean batuko dira eta egiaztatzeak bertan egingo dira. Umeentzako puzgarriak, simulagailua, jolasak... ere Kultur Etxean izango dira 11:00etan. Slalom probari 11:30ean emango zaio hasiera Kotoxulo parkean. Ondoren, 13:30ean, sagardotegia zabalduko da Kultur Etxean. "Buffet libre, jana eta edaria, egongo da txartela erosten duenarentzat. Txartelek 10 euro balio dute eta herriko tabernetan ipiniko dira salgai", esan digute antolatzaileek. Arratsaldean, 17:30ean, bertso rally erronka egingo da bigarren aldiz eta bat-batean arituko dira bertsolari hauek: Andoni Egaña, Amets Arzallus, Fredi Paia eta Arkaitz Estiballes.

"Bertsolariekin batera hainbat auto-gidari ibiliko dira, esate baterako, Iban



Tarsicio, Ibon Garai, Jon Zallo, Iñaki Narbaiza, Iñigo Peña, Antton Jauregi,..." Azaldu digutenaren arabera, bertso rally erronka esperimantu moduan antolatutuzten lehenengo aldiz. "Kide batzuk bertsolaritza eta racing-a ditugu gogoko eta biak uztartuz zerbait egitea pentsatu genuen. Kritika onak jaso genituen eta horregatik antolatuko da berriro aurten. Ekintzak iazko estruktura bera edukiko

du: poteoan ibili eta taberna bakoitzean proba bat egingo da".

Zibarenak baino gehiago

Zamudio Racing Egunaren iturburu bertso rally erronka da, hain zuzen ere. "Urrats bat haratago eman nahi genuen eta ekitaldia borobiltzen hasi ginen. Zamudio Racing Eguna lan horren emaitza da eta ekitaldi guztiak erakargarriak eta inportanteak dira guretzat". Hala, herritarrek haiekin batera elkartearen eguna ospatzea dute helburu. Horretarako, elkartearen sustaerak -motor mundua- bat egingo dute beste ekitaldi batzuekin, hala nola musika, bertsolaritza, umeen jolasak eta heziketa.

Elkartea 2004an sortu zen Txori Herri Motorsport izenarekin. "Hasieran jendeak uste zuen rallyak gustatzeak auto bat hartu eta zibarenak egitea ekartzen zuela, baina pixkanaka-pixkanaka bagoaz hori baino askoz gehiago dela buruan sartzen. Izan ere, jendea laguntzen diogu motor munduan lehenengo urratsak ematen, eta ikastaroak ere egiten ditugu gidatzeari beldur dion jendea zuzenduta. Bestalde, garrantzitsuena da gure ekitaldietan zamudioztarrek gero eta parte hartze handiagoa dutela. Lagundu ez ezik proposamenak ere egiten dizkigute eta horrek aurrera jarraitzea animatzen gaitu".

GAMINIZ
JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212. Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

www.gaminiz.com

AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburunbata:
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 behe
Zamudio
94 4520419

Carrefour
express

ORDUTEGIA
Astelehenetik ostiralea arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

BIDE-GORRI

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irakia
WIFI gunea

ERREKA
ONDORIO
JATETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

San Inazio (Aldekone – Derio)

Uztailak 31, domeka

- 11:00: Kalejira.
- 11:00: Puzgarriak.
- 12:30: Meza eta nagusientzako kopaua.
- 13:15: Nazioarteko folklore emanaldia: Ak Maral Kirguistaneko ballet nazionala.
- 19:00: Herri kirolak.
- 20:30: Dantzatzeko musika.



Ak Maral Kirguistaneko ballet nazionala.
a: www.ivorypomegranate.com

San Bartolome (Zamudio)

Abuztuak 23, martitzena

- 17:00: Bolandera nagusia.
- Mus Txapelketa.
- 18:30: Umeentzako ginkana.
- 20:30: Txitxi-burruntzia.
- 21:00: Erromeria, Dj Paco Sanchezekin.

Abuztuak 24, eguaztena

- 12:30: Meza.
- Puzgarriak.
- Edadekoei omenaldi-kopaua.
- Paella txapelketa.
- 14:00: Paellak aurkeztea.
- 17:30: Puzgarriak.
- 19:30: Idi-probak.
- 21:00: Sardina jana.
- Erromeria, Dj Paco Sanchezekin.

Abuztuak 25, eguena

- 80ko hamarkada gogoratzen.
- Marmitako Txapelketa.
- 12:30: Meza.
- 13:00: Umeentzako tailerrak.
- Sokatira, emakumeak gizonen kontra.
- 14:00: Kazolak aurkeztea.
- 18:00: Umeentzako tailerrak.
- 19:00: Zaldi probak.
- 20:00: Patata tortilla txapelketa.
- Puzgarriak.
- 21:00: Txapelketen sariak banatzea.
- 21:30: Erromeria, DJ Paco Sanchezekin.



Jaiak auzoetan

Larrondo (Loiu)

Irailak 2, ostirala

- Tortilla Txapelketa.
- 18:00: Txupinazoa.
- 18:00: "Joseba Bilbao" V. Hiruko Torneoa: CD Loiu, SD Erandio, Gatika KT.
- 19:30: Haurrentzako pelikula.
- 21:30: Tortillak aurkeztea.
- 23:00: Berbena, Trixio taldearekin.

Irailak 3, zapatua

- 14:30: Herri bazkaria. Ostein, Mus, Tute eta Briska Txapelketak.
- 17:00: Haurrentzako jolasak eta herri kirolak.
- 17:00: Pilota Txapelketa.
- 22:00: Mozorro festa, haurrentzat. Gaia: olinpiar jokoak.
- 22:30: Mozorro festa, nagusientzat. Gaia: olinpiar jokoak.
- 23:00: Berbena, Triki ta Ke taldearekin.

Irailak 4, igandea

- XXVII. Piper Txapelketa eta VIII. Paella Txapelketa.
- 12:00: Meza, auzoko hildakoen oroimenez eta ohorezko aureskua.
- 13:00: Herri dantzak, Gorantzaileak dantza taldearen eskutik.
- 13:00: Omenaldia eta kopaua, nagusientzat.
- 14:00: Piperrak aurkeztea.
- 14:00-15:00: Paellak aurkeztea.
- 16:00: Apar festa.
- 17:00: Diskofesta, Dj Mariorekin.
- 21:00: Jaien bukaera.

Santa Kurtze (Sondika)

Irailak 14, eguaztena

- 12:00: Meza. Ondoren, aureskua Gorantzaileak dantza taldearen eskutik.

Irailak 16, barikua

- 18:00-20:00: Dj Iñigo.
- 23:00: Herriko talde baten kontzertua.
- 24:00: Kontzertuak: Akerbeltz + Dj bat.

Irailak 17, zapatua

- 11:00: Kalejira, Ipar Elaiak txistu taldearekin.
- 11:00-14:00: Umeentzako jolas parkea.
- 11:30: Kalejira, Triki Xabierrekin.
- 12:00: Marmitako Txapelketa.
- 14:00: Kazolak aurkeztea eta sariak banatzea.
- 18:30: Ohorezko Mailaren I. futbol partida.
- 20:30: Euskal Herriko kantuak, Txuma Olagüe abesbatzaren eta Olagüe talde koralarren eskutik.
- 24:00: Kontzertuak: Etsaiak + Dj bat.

Irailak 18, domeka

- 11:00: Kalejira, Ipar Elaiak txistu taldearekin.
- 11:00-13:15: XI. Marrazketa eta Margolaritza Lehiaketa (5 urtetik 13 urtera bitarteko umeentzat).
- 11:00-14:00: Umeentzako jolas parkea.
- 13:30: Sariak ematea.
- 18:00: Dantzen alardea, Gorantzaileak dantza taldearen eskutik.

San Esteban (Aldekone – Derio)

Abuztuak 3, eguaztena

- 12:30: Meza.
- 13:15: Kopaua.
- 14:30: Sukalki Txapelketa.
- 16:30: Mus Txapelketa.
- 20:00: Sariak banatzea.
- 20:00: Jaien amaiera.

Erromes Eguna (Larrakoetxe)

Abuztuak 14, domeka

- Puzgarriak.
- 20:00: Aitor Irazolari lore eskaintza.
- 20:00: Saiheski jana.
- 22:00: Disko festa.
- 01:00: Irteera Begoñara.

Sandoni (Zamudio)

Irailak 2, barikua

- 12:00: Txupinazoa.
- 12:30: Meza, ermitan. Ostein, nagusiei omenaldia eta euskal kantak.
- 20:00: Idi probak. Ondoren, txitxi-burruntzia, eta musika, Kantarelux taldearekin.

Irailak 3, zapatua

- Umeentzako puzgarriak eta jokoak.
- Paella txapelketa.
- 12:00: Meza ermitan. Ostein, dantza saioa, Hiru bat taldearen eskutik.
- 14:00: Paellak aurkeztea.
- 16:30: Mus txapelketa. Ondoren, txapelketen sariak banatzea.
- 20:30: Txitxi-burruntzia.
- 21:30: Dantzaldia, Joxe Mendizabal-ekin.

Ginkana, Gazte Egunaren nobedadea

Larrabetzuko Hori Bai gaztetxeok, ohikoa den moduan, uztailaren 30erako antolatu dute Gazte Eguna. Esan digute-nez, aurreko urteetako eskemari jarraitu diote eguna prestatzeko; aurten, hala ere, nobedade bat izango da, lehen aldiz ginkana bat egongo delako, herrian zehar egingo dena 12:00etatik aurrera. Bestalde, trikitilariak ere handik eta hemendik ibiliko dira goizean herria girotzen.

Gazte Eguna San Ignazio Egunean egingo da bertan, eta horregatik egingo dute bat aurten egun bietako herri bazkariak. Ostein, *Adarretatik zintzilik* antzezlan eskainiko du Gilkitxaro antzerki taldeak, eta 18:00etan hasiera emango diete gaztetxe eta gazte asanbladen arteko olinpiadei. Elektro Txufla elektrotxar-rangak herria, herritarrak eta gazteak animatuko ditu 20:00etatik aurrera, eta 22:00etan kalejira eta ekitaldia egingo dira. Kontzertuak talde hauen esku egongo dira: Eskean Kristo, Boikot eta Joxe Replay. Kontzertuak plazan egingo dira, 23:30ean hasita. Gaztetxean, dj-ak egongo dira goiz osoan zehar.



Urterik urte jendetza handia batzen da Larrabetzuko Gazte Egunean. Hangoekin Txorierriko gazteek ez ezik beste herrietakoek ere egiten dute bat eta aurten ere hala izatea espero dute. "Ez daki-gu esaten zenbat jende batuko den, baina jendea etorriko dela... segurur! (kar, kar).

Eskean Kristo taldea.



TURREGOITI
JATETXEA
Lauroeta etorbidea, 27
48180 Lodu-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteturregoit.com

TXORIERRI
Inmobiliaria
Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net
Kontuz! Gortu
AHOKI-LABITZA, TASAZIDA,
ALZATZEAK - ENKUALDITZEAK
SALEHONKETAK
SEGUROS BELLAGODEN-AGENZIA

yedra
floristas
Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefonoa: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

Lezamako lasterketan izena emateko epea zabalik

a: Gaizka Peñafiel

AMugetatik Lezamako kirol klubak abuztuaren 28rako antolatu du aurten "Lezamako mugetatik" mendi lasterketaren eta ibilaldiaren hamaikagarren edizioa. Izena emateko, lezamakomugetatik.com webgunera jo behar da. Probaren gainerako xehetasunak eta informazioa webgune horretan bertan ezarri dira.

Helduek 14 euro ordaindu beharko dute lasterketan zein ibilaldian parte hartzeagatik, eta federatuta ez daudenek, bost euro gehiago aseguruagatik. Nolanahi ere, probaren egunean bertan ere eman ahal izango da izena, lekurik izanaz gero, eta orduan 15 euro ordaindu beharko da eta federatuta ez daudenek berriz, 20 euro ordaindu beharko dute. Bestalde, lezamarrek zortzi euro ordainduko dute;

eta umeek, bost euro. Izan ere, aurreko edizioetan bezala, umeek txikien ibilaldia egiteko aukera izango dute.

Aurtengo probari dagokionez, aipatu beharra dago ibilbidea apur bat luzeagoa izango dela, 26,5 km-koa, eta desnibela, 1.200 m-koa. Gaztelumendin tarte berrien bat egongo da. Era berean, "Ganguren ziztu bizian" deituriko zati bertikala neurtuko da, iaz egin zen moduan.

Lasterketan hiru maila izango dira: seniorrak, beteranoak eta Lezama. Hirurak, emakumezkoen eta gizonezkoen kategorian. Parte-hartzaileen artean opariak banatuko dira: txaleko polarrak helduentzat, kirol-jertseak umeentzat, Lezamako produktuak... Horrezaz gainera, giro ederra izango da herrian eta, besteak beste, piperrak eta txakolina dastatu ahal izango dira.



Herriko hamahiru gazte baserri-tarrek euren indarrak batu dituzte euren jarduerari bultzada bat emateko. Elkarte bat sortzeko bidean daude, eta hainbat ekintza aurrera ateratzeko asmoa dute. Zamudion merkatu txiki bat antolatzea da ekintza horietako bat.

Joana Lara eta Ibai Etxabarría dira gazte baserri-tar horietako bi. Azaldu digutenez, merkatu txikia hileko lehenengo zapatuan egingo dute, goizean, eskola zaharreko patioan, eguraldi ona badago, eta aterpean, euria bada. Ekoizleek bertan ipiniko dituzte ikusgai eta salgai euren produktuak: ortuariak, ogia, marmelada, arrautzak, txakolina, landarak, oiloak, barraskiloak eta garagar-doa, batzuk bakarrik aipatzearen. Aipatu beharra dago, gainera, gehienak produktu ekologikoak direla.

"Gure lana eta produktuak eza-gutza ematea ez ezik, balio batzuk ere bultzatu nahi ditugu: kilometro zero elikadura, kalitatekoa eta freskoagoa, zuzeneko salmenta, herritarrak hemengo bertoko produktuetara hurbiltzea eta nekazaritza-merkatuari laguntza animatzea...". Era berean, herrian giroa piztea ere helburu dute. "Ez dugu nahi dendarietara eta gu konpetentzia moduan ikustea. Haiekin lan egin nahi dugu, eta lortu jendea merkatura zein dendetara eta tabernetara erakartzea".

Merkatuaz gainera, beste erakar-garri batzuk eskainiko dizkiete bai zamudioztarrei bai albo-herrietako bisitariei. Hala, merkatuaren edizio bakoitzean zerbait ezberdina antolatzen ahaleginduko dira. "Irailan, antzinako lanabesen erakusketa txiki bat egingo dugu eta, abuztua eta iraila tomaterako hilabete onak direnez, lehiaketa bat ere egingo dugu,



Garmendia ardoak

Pinoa pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49



Hertz-klinika IDOIA ZUBIETA

Osasun-zentroa & Hertz-estetika
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Areitza dokorea, 11. - 1. ezk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Urbe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370



OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

Merkatu txikia egingo dute Zamudion



“Gure produktuak zein kilometro zero ko elikadura, hemengo ekonomia... bultzatu nahi ditugu”

herriko tomaterik onena aukeratzeko. Kategoria bi egongo dira: ekologikoa eta ez ekologikoa, eta lehiaketan nahi duten guztiek hartu ahal izango dute parte, tomateak etxeko ortuan landatzen dituztenek zein balkoian loreontzi batean landatzen dituztenek. Epaimahaia adituek osatuko dute”.

Konfiantza

Ekoizleari zuzenean erosteak abantaila handiak ekartzen dizkigu: freskotasuna, zapora goxoagoak, hurbiltasuna, hemengo ekonomia bultzatzea eta batez ere konfiantza baserritarrengan zein produktuan. “Oso inportantea da jakitea

zer jaten dugun, nondik datorren eta zelan ekoiztu den. Izan ere, supermerkatuetan erosten ditugun produktuek kilometro asko egiten dituzte, 3.000-4.000 kilometro batez beste”. Horren haritik, Ibaik aipatu digu berak Merkabilbaon saltzen duela, eta bere produktua topatu duela supermerkatu-kate handi eta ezagun batean. “Hausnarketa egin behar dugu hainbat alderdiren gainean: nik produktu hori zenbatean saldu dudan eta erosleak zenbatean erosiko duen, zenbat bitartekari egon diren eta zenbat egun pasatu den nik produktu hori lurretik hartu eta supermerkatuan salgai ipini den arte”.

Nekazaritzakoa zaharkituta dagoen sektorea da: baserritarren batez besteko adina 60 urtekoa da. Gainera, Zamudioko kasuan, lehen ortu eta negutegi ugari bazeuden, orain, bizpahiru baserritar egongo dira, aipatutako hamahiru ekoizle gazteez aparte. Horregatik da pozgarria gazteok lehenengo sektoreari berriro begiratzeari euren bizimodua ateratzeko. Ibaik eta Joana langabezia lotu ziren eta lehenengoak gurasoan ortuarekin jarraitzea erabaki zuten, eta Joanak, berriz, barraskilohastegi bat ipintzea, amak zuten lursail batean. Gainera, familia eta lana uztartzea ahalbidetzen dion jardura da.

Irailetik aurrera Zamudion hileko lehenengo zapatuan egingo den merkatu txikia beste tresna bat izango da euren eta herriko gainerako baserritar gazteen produktuak herritarrei hurbiltzeko, eta ekoizle eta bezeroen arteko harreman zuzena lantzeko. Irailaren 3an, beraz, lehenengo hitzordua dugu haiekin.

bai
euskarari

Bai Euskarari Zurtagiria, gure sustatzearen bidez, kalitatezkoak eragiten

Zurtagiaren kalitatea
Zurtagiria

Urrats biziak

Twitter Facebook LinkedIn

BIZKARGI
TABERNA ETA JANARIA

Urkiola, 6 DERIO 944541655

elekma
URRIAZEREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRIAK
TELEBISTA ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TXIKIA

Lehenengo mailak • Prestakion onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Taxiari ataribidea, 25-3.N. 48180 Iruia
T: 944 539 232
www.elekma.es

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48180 DERIO
T: 94 602 75 25-6

a: Guiomar Gordon

Ekainean, Lezamako Pilota Elkarteko mutilek Bizkaiko Herriarteko Txapelketa irabazi zuten Urtuellan, gazte kategorian. Finalean, lezamarrak Zeanuriren kontra aritu ziren hiru mailatan: benjaminak, kimuak eta haurrak. Benjamin mailako bikotea Adrian Uriartek eta Aitor Olazabalek osatu zuten, eta ordezkari Irkus Gaskon ibili zen, finalerdia jokatzeko aukera izan zuena. Kimu mailan, Aimar Busketek eta Bittor Iruretagoienak jokatu zuten; eta haur mailan, Ekaitz Legarretak eta Oier Hormaetxek. Haur mailan galdu arren, Lezamako pilotariak beste maila bietan nagusitu ziren eta txapela Txorierrira ekarri zuten.

“Oso partida gogorak izan dira eta poz-pozik gabiltza. Hala ere, garaipenak apur bat ustekabearen harrapatu gaitu, gure pilotariak onak badira ere, Zeanuriko taldea indartsua delako eta faboritak haiek zirelako. Baina gure mutilek maila ederra eman dute eta irabazteko gauza izan dira”, esan digu Markel Zabala monitorea batek. Markelek eta beste monitorea, Ieltxu Beatok, gogor egiten dute lan Lezamako Pilota Elkartean, pilotari gazteei kirol honetako gaokoak irakasteko. Azken bolada honetan, fruitu onak jasotzen dabilta.

“Lezaman, harrobia egon badago. Talde polita dugu eta gazteek jokatzeko jarraitzen badute, pilotari onak izango dira. Gustura egiten dugu lan. Egia da pilota eskolak bolada txarrak eduki dituela, baina azken urteotan oso pilota-

*Lezama benjamin,
kimu eta haur mailatan
jokatu zuen finala
Zeanuriren kontra*

*Adrian Uriarte
ere Bizkaiko
txapelketa irabazi du
Benjamin mailan*

Lezama, txapeldun!



ri onak eta giro aparta ditugu. Gainera, garaipenak lortzen ditugu. Azken hau, Bizkaiko Herriarteko Txapelketa, Txapelketa Liga irabazte bezalakoa da, Bizkaian irabazi ahal den txapelketarik onena. Era berean, zure herriaren ize-nean lehiatzeak harrotasuna ematen dizu”.

Bizkaiko txapela

Bestalde, Adrian Uriartek Bizkaiko txapela ere jantzi zuen benjamin mailan. Sondikoztarra erraz nagusitu zen Zornotzan jokaturako finalean, 16-2, Bingen Beitia zeanuriztarraren kontra. “Bere kategorian oso ondo moldatzen da, eta, bere jokoa hobetzeko, mutil nagusiekin jokatze gomendioa eman diote Lezamako entrenatzaileek”, esan digu amak. “Hamar urte baino ez ditu eta oraindik oso goiz da jakiteko etorkizunean zer gertatuko den. Oso kirolari ona da eta izugarri gusatzeko zaio ariketa fisikoa: atletismoan eta futbolearen aritzen da, eta dantzaria ere bada. Mugimenduan badago, bera pozik”.



Eduardo Delgado Velasco | jakien intxixua

Galdakaoko Ostalaritza Eskola Nagusitik irten eta Eduk bazekien gogor lan egin beharko zuela bere ametsari, sukaldari profesionala izateari, heltzeko. Sondikako Tryp hotel ohian hasi bazen ere, laster Kaliforniako euskal etxe batera eman zuen saltoa eta han hiru hilabetez egon zen. Euskal Herrira itzuli eta 29 urteko derioztarra jatetxe hauetan izan da: Larrabetzuko Ankapalu sagardotegia, Bilboko Yandiola, Galdakaoko Andra Mari (Michelin izar batekoa), Gordexolako Komentu Maitea, eta Larrabetzuko Azurmendi (hiru Michelin izarrekoa). Gaur egun, Seminarioko Txoko Ona jatetxean egiten du lan, etxetik eta bere baratze preziatutik bost minutura. Sukaldatea da bere pasioa, eta lehen sua piztu zuenetik, horretaz bizi izan da.

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti
www.jongoikouria.com

Kemena.
Zure negozioaren bultzada

Publizitatea
eta eduki kreatiboak



✉ info@atomikastudio.com

www.atomikastudio.com



“Nire bizitza pertsonalean jarriko dot arretea orain”

t/a: Gaizka Eguzkitza

Triste, itxi behar izanagaitik ala pozik, orain arte egindako ibilpideagaitik?

Biak. Baina bat aukeratu behar badot, pozik esango neuke. Kirolean ibiltzen zaranean badakizu helduko jatzula amaiera. Eta amaitzeko modurik onena Liga irabaztea da. Zoritxarrez, ezin izan neban azken partida jokatu, baina tira, batzuetan erabagia ez dago zure esku.

Agur esatea Liga irabazi eta gero. Ez da makala, ezta?

Bai. Bederatzi urte emon doguz Liga irabazi barik eta askotan irabazteko gertu-gertu ibili gara. Hainbeste urte, hainbeste lan... Azkenean lortu dogu eta poz-pozik gabilz, zelan ez.

Aurten zergaitik bai?

Ez dakit. Batetik, aurten hobeto kudeatu dogu presinoa; eta bestetik, irabazteko behar dozun suerte-ukitu hori euki dogu. Suerte topau behar da, bai, baina azken zortzi urteotan be gogo handiz ibili gara eta ez dogu lortu. Beharbada, aurten suerte guzti hori batera etorri jaku.

Zure ibilpidean, zer da onena eta txarrena?

Onena, Athleticen jokatu ahal izatea, eta jakina, lehenengo Liga. Lehenengoa izan zalako, non eta San Mamesen irabazi

AMAIA OLABARRIETA | futbolari ohia

Arraroa da Amaia futbolari ohizat jotzea, Athleticen 13 urte emon eta gero. Halanda be, lezamarrak aurten itxi dau futbola, belauneko lesino bat dala-eta. Taldekideek agur ezin hobea eskaini deusie Amaiari, denporaldi honetan, Superliga irabazi dabelako. Eta hori ospatzeko, ez dabe gabarrarik atera. Autobusa atara dabe.

gendualako... Txarrenari jagokonez, gurago dodaz gogoan gauza politak euki. Amaitu behar izatea triste da, baina taldea itxiko dot Liga irabazi eta gero, eta hori oso polita da.

Koparik ez dozu lortu. Arantza berezirik badozu horregaitik?

Ez da aitzakia bat, baina Kopa txarto antolatzen da. Mutilek denporaldian zehar jokatzan dabe; guk, oster, denporaldi amaieran eta asteburu bitan. Aurten, oso nekatuta amaitu dogu eta ezin izan dogu gure maila emon. Seguruenik, horregaitik, ez daukat pena handirik koparik irabazi ez izanagaitik. Nire ustez Ligak garrantzi handiagoa dauka, urteko lana adierazoten daualako.

Aurten be egin dozue ospakizuna. Aurreko aldietan baizen politagoa?

Beti da polita, batez be autobusez joatea. Zaleak gertu-gertu egon dira eta

“Ospakizunetan zaleen hurbiltasuna eukiteko, autobusa gurago dogu gabarra baino”

kristoren babes emon deuskue. Gizarte mailan, asko egin da berba gabarrari buruz, baina, gure ikuspuntutik, horrek ez dauka garrantzi handirik. Aldagelan, jokalaria batzuek esaten eben gabarra polita izango zala, eta beharbada zuzen ebiltzan, baina gehienok uste genduan hurbiltasuna zala garrantzitsuena. Eta horretarako, egia esateko, gurago genduan autobusa, jentea gabarratik oso urrun da goalako.

Erraketa eta baloiaren artean

Amaia Olabarrieta Elordui Lezaman jaio zan 1982an. Guztira, 13 denporaldian ibili da Athleticen, eta bertan 232 partida jokatu ditu, 32 gol sartu ditu eta hiru Liga (2005, 2007, 2016) lortu ditu. "Kirolaria izan naz beti. Txikitan saskibaloia eta gimnasia egin nebazan, baina batez be tenisa eta futbola gusetan jatazan. Tenisean hainbat txapelketa irabazi nebazan, baina oso kirol gogorra da, oso bakartia, eta akabuan erabagi neban tenisa itxi eta futboleant jokatzea".

Amaia nahiko berandu hasi zan futboleant jokatzen, 18 urtegaz. Lehenik eta behin, Bizkerre Mungiaiko taldeant, eta 2004tik aurrera, Athleticen. "Klubeant sartu nintzaneant, emakumezkoen futbolaren hasierako pausuak ziran. Bizkerren nik ordaindu behar izan ne-

ban fitxa (kar, kar). Harrezkero, emakumezkoen futbola bere bidea dabil egiten, astiro, baina beti aurrera, eta hori ona da. Emakumezkoen futbola aurrera jarraitzea guztion ardura da, kate bat moduan: jentea etorri behar da partidetara; horretarako, komunikazioa egon behar da, hau da, komunikabideak eta batez be telebista oso garrantzitsuak dira. Eta ganera, guk tituluak irabazi behar doguz, jentea zein komunikabideek gutaz berba egiteko".

"Etorkizunari begira, gustauko litxakit neskak futboleantik bizi ahal izatea. Ez dot uste inoz mutilen mailara heldu ahal izango gintzakezanik, baina behintzat gaur egungo edozein langilek dituan baldintzak eukitea gustauko litxakit. Eta ez dot uste helburu hori oso urrun dagoanik".



2014an, belauneko lokailu kuru-tzatua apurtu jatzun, eta harrezkero ezin izan dozu jokatu. Gogorra izan da?

Bai. Lokailu kurutzatua apurtzen dabenek behintzat sei hilabete ko bajea hartzen dabe, baina nik urte bi eta ebakuntza bi daroadaz. Normaleant lokailua bakarrik apurtzen da; nire kasuan, ostera, kolpe baten ondorioz apurtu zan eta hori oso gogorra izan zan belaunerako. Horregaitik, nire gorputzak berak eragindako gaixotasun bat sortu jatan belauneant. Horrek kalte egin deust. Min hartu neba-



neant, nire kabuz hasi nintzan laneant, taldeko egunerokotasunetik kanpo. Hori da gogorrena, kanpoan egotea. Azken bi urteotant gimnasioant eta fisioterapeutakaz ibili naz batez be. Etorkizunari begira, esan deuste osatuko nazala, baina dana doa oso astiro. Orain dala hilabete batzuk, herren nenbilen ohetik altxaten nintzanetik, baina gaur egun ibili ahal naz, ibiltaldi luzeak egiten ez badodaz be. Ezin dot korrika egin eta ezin izango dot kirola egin.

Futbola amaitu da. Orain zer?

Magisterioko lehenengo urtea amaitu dot, eta oraindino ez dakit zer egingo dodan. Orain, beste aro bateant murgilduko naz eta arreta jarriko dot nire bizitza pertsonaleant.

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 855 90 06

TXORIERRI MARMOLDEGIA

Sukalde eta bainugeletako harriak
Fatxadak • Atariak • Hilerrriak

Torrelarragoiti ind., 7 B.P. - 2. nabea
48170 Zamudio (Bizkaia)
T./F.: 94 608 01 41-2

LEANDRO LANDETA

HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel.: 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrelarragoiti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

ASADOR FUENTENEberria
"lur eta itsasoko baserria"

Gosariak
Afariak
Enpresa-bazkariak
Ekitaldiak
Jantoki pribatuak

ESPEZIALITATEA:
Okela eta arraina
txingarretan erreta

LEKUNBIZ AUZOA 26
ZAMUDIO (BIZKAIA)
94 452 23 79
www.asadorfuenteneberria.com

t: Gaizka Eguzkitza / a: O. A.

“Hamalau urte nituela Irlandara joan nintzen ingelesa ikastera. Ez nuen joan nahi, baina oso ondo pasatu nuen. Hurrengo urtean, auzolandegi batera joan nintzen Alemaniara, eta horrek nire bizitza aldatu zuen. Hamabost urte, atzerrian, gurasorik eta ia begiralerik gabe... Niretzat itzela izan zen eta harrezkero neure pasioa askatu nuen. Etxean lotura pilo bat ditugu, baina kanpoan aske sentitzen naiz. Atzerrira joaten naizen bakoitzean, askatasunaren eta esperientzia berrien bila noa”, dio Xabierrek.

Xabier Sondikakoa da eta Txorierriko institutuan ikasi zuen. Amaren familia sondikoztarra da, baina aitarena, Zigoitia-koa, arabarra. Eta beharbada horregatik jantzen zuen gaztetan Alaves taldeko kamiseta. “Kamiseta Astudillo jokalaria argentinarrarena zen eta taldean beste Xabier batzuk zeudenez, Astu ezizena jarri zidaten eta orain ere hala jarraitzen dute”.

Batxilergoa bukatu zuenean, urte sabatikoa hartu zuen. “Urte gogorra izan nuen eta ez nekien zer egin eta zer ikasi. Askatasunaren falta sumatzen nuen eta gainera deskonektatu eta jendea lagundu nahi nion”. Gurasoek era ezberdinetan hartu zuten semearen erabakia: ama, guztiz kontrakoa; aita, aldiz, aldekoa. Hala ere, amak lortu zion bidaia. “Amak ospitale batean egiten du lan, eta bertako mediku bat urtero joaten da misioetan. Nik berarekin bat egin nuen eta Mozambikera joan nintzen”.

Afrikan bizi izan zuen esperientzia “itzela” izan zen. “Han denetarik egiten nuen: umeen pisua eta txertoak kontrolatu, gaztelaniazko eskolak eman, ortua lantzen lagundu, landatutakoa hiriburuan saldu, janaria banatu...”. Bestalde, portugaleria ez ezik beste gauza batzuk ere ikasi zituen. “Hango jendeak ez dauka ezer, eta askotan gu baino alaiago bizi dira. Adiskidetasun itzela dute, han hasiera-hasieratik sentitzen zara zerbaiten parte. Gainera, ni oso gazte joan nintzen eta kanpora joateak gogorrago, helduago, egin ninduen”.

Australia

Sei hilabete pasatu eta gero, Xabier etxera itzuli zen eta bizitza arrunta eramaten hasi zen: EGA prestatu zuen, Lehen Hezkuntza eta Psikopedagogia ikasi

Askatasunerako grina

XABIER GARCÍA DE KORTAZAR | irakasle eta bidaia zalea

Gaztea izan arren, 29 urte, Xabier Mozambique edo Australia bezalako herrialdeetan bizi izan da. Kanpoan egoteak askatasuna ekartzen dio, batzuetan baita sustoren bat ere. Gaur egun, momentuz, Sondikan bizi da eta maisu egiten du lan.



“15 urte nituela auzolandegi batera joan nintzen eta horrek nire bizitza aldatu zuen”

“Atzerrira joaten naizen bakoitzean, askatasunaren eta esperientzia berrien bila nabil”



zituen, lagunekin egiten zituen bidaiak... Hala ere, berriro sortu zitzaion askatasunerako grina, eta, lagun batek Australiara joatea proposatu zionean, Xabierrek ez zuen birritan pentsatu behar izan. "Australiara joan ginen lagun bat bertan guelako eta, haren esanetan, han erraza zelako lana topatzea. Eta, bide batez, ingelesa ikasi ahal izan genuen".

Xabier Sidney hirian egon zen, baina herri osoa ezagutzeko aukera izan zuen. Bitartean, ingeles eskolak jaso zituen eta eraikuntzan egin zuen lan. "Australian jatorri askoko jende pilo bat ezagutu nuen, eta hori oso aberasgarria izan zen, bakoitzak bere ikuspuntua daukalako. Gainera, lagun horiei esker, doan bidaiatzeko aukera izan dut. Esate baterako, Polonia eta Grezian egon naiz (kar, kar). Jende berria eta paisaia ikaragarriak izan ziren gehien gustatu zitzaizkidanak; gutxiena, aldiz, australiarren jokaera txarra gurekin, etorkinekin. Ikasgai polita da, gurera etortzen diren etorkinak beste ikuspuntu batetik ikusteko".

Xabierrek urte bi eman zituen Australian, eta handik Balira, Indonesiara joan zen. "2014ko udan nire lagun baten nagusiak lana eskaini zidan batean, baina ezin izan nintzen lanean hasi, denge hemorragikoa harrapatu nuelako. Oso gaixorik ibili nintzen eta egun batzuk eman nituen ospitalean. Pilo bat argaldu nintzen eta gurasoak kezkatuta zeuden, aspaldian ikusi ez nindutelako. Beraz, azkenean Euskal Herrira itzuli nintzen. Bidaian kristoren mina nabaritu nuen be-

"Balin dengea eta parasito bat harrapatu nituen begian. Hori dela-eta, begia galtzeko zorioan egon nintzen"

gietan, eta zornea botatzen hasi nintzen. Bat-batean ikusmen barik gelditu nintzen eta aireportutik zuzenean ospitalera joan nintzen. Antza denez, parasitoren bat harrapatu nuen. Astebete eman nuen ospitalean, eta begia galtzeko zorian egon nintzen".

Hurrengo hilabeteak, 2015eko hasieran, oso gogorrak izan ziren Xabierrentzat, ikusmena berreskuratzen ibili zelako. "Ezin nuen lanik egin, ezin nintzen inora joan...". Hala ere, udatik aurrera gauzak hobetu egin ziren. "Hezkuntza publikoan hasi nintzen lanean, ordezkapenak egiten, hainbat lekutan. Azkena Gurutzetako institutuan izan da eta bertan gela berezi batean ibili naiz, premia bereziak dituzten ikasleekin. Erronka polita da, ikasle horiek ikasle arruntak baino gehiago betetzen naute". Lanari esker, Xabierrek berriro ekingo die bidaiei. Beharbada, Hego Amerikara joango da maisu lan egitera. Baina, lehenik eta behin begia osatu behar du erabat. "Amak oso txarto pasatu du eta ez du ezer entzun nahi kanpora joateari buruz. Momentuz ez naiz inora joango". Momentuz.





POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Lanbide Heziketa eta Bigarren Hezikuntzarako Ikastetxea

Uztzagalekoa Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 00 | info@txorierri.net
48100 - DEFRIO | Fax: 94 403 40 81 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

ZIENTZIAK BATXILERGOA LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Mekanizazio teknikaria
Erdi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Produzioaren Programazio teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Automatizazio eta Robotika Industrialeko goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Telekomunikazio eta Informatika Sistemetako goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

SEGURTASUNA ETA INGURUMENA

- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrolako goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)







Futbol-zelaian ere euskaraz

Uztailaren 11n, iragarpen garrantzitsua egin zen Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatean. Izan ere, datorren denboraldirako, Txorierriko bost udalek eta bost kirol elkartek futbol-jardueran euskara sustatzeko hitzarmena sinatuko dutela adierazi zuten bertan. Udalak hauek dira: Larrabetzu, Zamudio, Lezama, Derio eta Sondika; eta kirol elkarteak: Uritarra, Zamudio KE, Bizia, Arteaga eskola eta Sondika KE. Hitzarmenak haurtzaroan eta gaztaroan euskararen presentzia areagotzea du helburu, modu ezberdinetan indar egingez.

Sukaldeko lan dezente egin ondoren, alkateek eta elkarteetako ordezkariak hartuko dituzten konpromisoak aurkeztu zituzten Derion. Ager Sardui kazetari ezagunak zuzendutako agerraldian, Igotz Lopez Mankomunitateburuak, eta Koikili Lertxundi Eusport enpresako kideak eta Txorierri Futbola Oinarritik Euskaraz proiektuaren koordinatzaileak ere hartu zuten parte. Esther Apraiz Derioko alkatea, Jon Ander Aurrekoetxea Lezamako alkatea, Xabier Zubiaur Sondikako alkatea eta Iñigo Gaztelu Larrabetzuko alkatea ere batu ziren ekitaldian. Baita elkarteetako ordezkarietako batzuk ere, hala nola Aitor Mujika, Iñigo Martinez eta Fidel de Prado.

Lehen aldia da eskualde bereko bost udalek eta bost kirol elkartek horrelako akordio bat sinatzen dutela

Sarduik eman zion hasiera eta itxiera agerraldiari, lehendabizi Igotzi eta ondoren Koikiliri hitza emanez. Mankomunitateburuak garrantzi berezia eman zion eskolaz kanpoko kirol jardueretan euskara indartzeari eta euskara berari prestigioa emateari. Horrez gain, akordioa historikotzat jo zuten, lehen aldia delako eskualde bereko bost udalek eta bost kirol elkartek horrelako akordio bat sinatzen dutela. Hortaz, Bizkaian Txorierri erreferente bat dela azpimarratuz bukatu zuten Igotzek bere agerraldia.

Ondoren, TOTOAN euskara elkarten koordinadorekin batera, Futbola Oinarritik Euskaraz proiektua koordinatzen diharduen Koikili Lertxundik orain arteko lana baloratu zuten. Eta sinatuko den hitzar-

mena, hain zuzen ere, izango da lan horren emaitzetako bat. Athleticeko futbolari ohiak esan zuenez, akordio honekin aurrerapauso nabarmena emango da, euskara udal eta kirol elkarten estrategiararen barne txertatuko delako. Eta hori horrela dela egiaztatzeko, akordioaren zazpi puntuen berri eman zuten:

- 1) Proiektuan parte hartuko duten taldeak.
- 2) Talde hauen arduradun, euskal koordinatzaileak arituko dira lanean.
- 3) Kirol elkarteetako komunikazio euskarrietan euskararen presentzia ugarituko da.
- 4) Udal, elkarte eta Eusporteko kideen arteko koordinazioa hobetuko da.
- 5) Gurasoak proiektuaren berri jaso eta bertan inplikatzeko saiakera egingo da.
- 6) Udal eta elkarteek euskarari prestigioa emango diote.
- 7) 2017ko ekainaren 30a baino lehenago, hurrengo denboraldiko hitzarmena sinatuko da.

Amaitzeko, Ager Sardui talde argazkia ateratzeko gonbitea egin zuten arduradun guztiei eta irudi horrek argi utzi zuten euskara gero eta estrategikoagoa dela Txorierriko futbol jardunean.



Cortaderia selloana edo panpa-lezka deituriko landare exotiko inbaditzaileak presentzia handia du gure ingurunean. Hasieran apaingarri gisa jarri bazen ere, arazo bihurtu da, eta orain erauzi egin behar dugu. Landare exotiko (edo aloktono) inbaditzaileak, jatorriz dagokien lekutik kanpo jartzen direnei esaten zaie. Kasu askotan, landare horiek leku berrira egokitzen dira eta bertan irauten dute; are gehiago, bertako espezieekin lehian sartzen dira eta, kasu batzuetan, ordezkatu ere egiten dituzte. Hala, biodibertsitatearen galera eragiten duten arrazoi nagusietako bat dira.

Landare horiek hazien bidez ugartzen dira nagusiki; izan ere, haziak beren jatorrizko landareak dauden lekuetatik hainbat kilometrotara mugitu daitezke. Koma bakoitzak milaka hazi sortzen ditu, eta hai-zeak, urak eta ibilgailuek horiek garraiatzen dituzte, jatorrizko landarea zegoen tokitik hainbat kilometrotara. Garrantzitsua da jakitea haziak ez direla ernamuntzen hiru edo lau zentimetroko lur-geruza baten azpian badaude.

Panpa-lezka abuztuaren 2ko 630/2013 EDko espezie inbaditzaileen katalogoan agertzen da. Hori dela eta:

–Debekatuta dago espezie horretako aleak edukitzea, garraiatzea, salerostea eta haiekin tratatzen aritzea.

–Eskumeneko agintariek lursailen titularreri eska diezaiekete beren ordezkariei lursailotan sartzeko baimena emateko,

Landare apaingarri bat arazo bihurtzen denean

espezie inbaditzaileak ote dituzten egiaztatzeko, eta, hala bada, horiek kontrolatzeko neurri egokiak hartzeko.

–Abenduaren 13ko 42/2007 Legean zehaztutako debekuak eta mugak hautsiz gero, zehapenak jarri ahal izango dira.

Nola erauzi landare horiek?

Errotik ateratzea: Hostoekin ebakirik ez egiteko, komenigarria da eskularruak erabiltzea. Landare gazteenak eskuz aterako ditugu. Horretarako, lurra heze dagoen tokiren bat aukeratuko dugu edo, bestela, ureztatu egingo dugu.

Ale ertainak ateratzeko, aitzurra erabiltzea gomendatzen da. Kimak agertu bezain pronto moztu behar ditugu, eta poltsa batean gordeko ditugu, haziak barreiatu ez daitezen. Landarea kendutakoan, saiatuko gara egin dugun zuloan sustrai-arrastorik ez uzten.

Lur-estalkia: Kontuan hartuta *cortaderia selloana* argia behar duela, plastiko beltz barrubigun bat jarriko dugu landarearen gainean. Hartara, ez du argirik jasoko eta hil egingo da. Plastiko hori, normalean polietilenoakoa, erabili ondoren, behar bezala deuseztatu beharko dugu. Hobe da plastiko

Debekatuta dago panpa-lezkaren aleak edukitzea, garraiatzea, salerostea eta haiekin tratatzen aritzea

biodegradagarriak erabiltzea. Nahikoa da erabili beharreko plastikoak 15 mikra inguruko lodiera izatea. Plastiko horiek nekazaritza-kooperatibetan eta lorezaintzan berezitatutako dendetan saltzen dituzte.

Azken aukera herbizidak erabiltzea da, baina ezin dezake edonork egin eta kontu handiz ibili behar da. Nahitaezkoa da fitosanitarioen aplikatzailearen txartela edukitzea, horretarako eskumena duen erakunde batek emandakoa. Horrez gain, herbiziden erabilera klimatologiaren menpe ere badago; ezin dira euri-egunetan botatu, ezta haizea lau kilometro orduko baino gehiagokoa denean ere.



“Umeek ere merezi dituzte begirunea eta kalitate oneko saioak”

ANA APIKA | aktorea

Beharbada, Monda eta Lironda pailazokak izango dira Apika taldeko pertsonaia ezagunenak. Ana Monda da; horrezaz gainera, ipuin-kontalaria ere bada. Umorea eta elkarrekintza dira urteetako eskarmentua duen aktore honek erabiltzen dituen tresnak.



t: Itxaso Marina / a: I. M. eta A.A.

Abuztuko geldialdiaren ostean, zelan datoz hurrengo hilabeteak?

Zaila da jakitea zer gertatuko den, kontratazioak pixkanaka-pixkanaka egiten ditugulako. Dena dela, urtean zehar hitzordu finko batzuk izaten ditugu; esate baterako, hainbat herritan urtero egiten diren programa bereziak, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Egunaren eta Emakumeen Egunaren haritik egiten diren ekintzak... Martxoan eta azaroan izaten dugu lan gehien, eta Gabonetan ere izaten da mugimendua, baina uste den baino gutxiago. Udalekuetan eta jaietan ere egiten dugu lan.

Sasoi onean dago zuen profesioa?

Kontratazioak izaten dira, bai, baina hasi ginenean, orain dela 22 urte, askoz

“Umorea barruan daramat eta, hori kenduz gero, zerbait galtzen dut”

lagun gutxiago aritzen ginen kontalari moduan. Lana gero eta ezagunago egin zen, krisialdia etorri zen eta antzerkigintzan zebiltzan asko kontalari moduan saiatu ziren. Lehia handia dago.

Intrusismoa ere bai?

Alde batetik, bai; baina bestetik, jende gehiago gaude, besterik ez. Edonola ere, nik ezin dut esan besteak nik baino okerrago egiten duenik. Lehenengo eta behin, ez dudalako nahikoa astirik konta-

lari guztien saioak ikusteko. AEDA Ahozko Narratzaile Profesionalen Estatu Mailako Elkarteko kidea naiz. Bertan, lan handia egiten ari da lanbidea defendatzeko eta duintzeko. Gainera, beste kontalari batzuekin egoten gara harremanetan, eta hori oso ona da, gure lana nahiko barkartia delako, eta hala kezka, esperientziak... beste batzuekin partekatzeak aukera duzu.

Zelakoa da umeekin, edo umeentzat, lan egitea?

Oso gauza polita da. Umeak beti gustatu zaizkit eta hain zuzen ere horregatik ikasi nuen pedagogia. Politu da buruan dutena-eta ulertzea eta uste dut badakidala zelan heldu haiengana eta zelan neureganatu haien arreta... Osterantzean, hainbat urteren ostean, beste leku batean egongo nintzateke... Batzuetan,

helduak baino gehiago gustatzen zaizkit, bai horixe!

Hala ere, helduentzat ere baduzu ipuin saio bat.

Erronka pertsonal bat izan zen. AEDAn sartu nintzenean, konturatu nintzen gainerako kontalariak umeei, familiei, helduei... zuzendutako saioak zituztela; eta nik umeentzat bakarrik. Garai hartan, Durangoko liburutegitik deitu zidaten helduentzako saio bat gazteleraz behar zutela esanez, eta animatu egin nintzen egitera. Polito lotu zitzaidan.

Zelakoa da eszenatokira igotzea, aurrean dituzunak helduak direnean?

Ni umeekin ez naiz urduri paratzen; helduekin beste kontu bat da. Baina, tira, ondo irten zen. Pailazoa naizenez, beti umorea erabiltzen dut neure saioetan, baina orduko hartan, gauza berria zenez, zerbait serioagoa egitea erabaki nuen. Gainera, saioaren gaia kontuan hartuta: bizitza eta heriotza. Baina, badakizue zer geratzen den? Ba, nik umorea barruan daramadala eta, hori kenduz gero, zerbait galtzen dudala uste dudala. Beraz, helduentzako beste saio bat dut buruan, umore-ukitua izango duena.

Zelan sortu zen Apika taldea?

1994an Hiruki taldea sortu genuen beste lagun bik eta nik. Urtebetetze-festak egiten genituen, baina txikiparkak modan jarri ziren eta horrek kaltea egin zion gure lanari. Egitasmoan buru-belarri sartuta geundela eta dirua ipinita genuela, gaiari buelta bat eman genion eta pailazo eta ipuin-kontalari aritzea erabaki



Lan batzuk

-Monda eta Lironda pailazoak:

Dinosaurio egitasmoa, Baietz Lortu, Zorionak, Hau Oparia...

-Umeentzako ipuin kontaketa:

Koloretakoak, Album familiarra, Emakumeak = Kontatzen, Ni neu-zu zeu, Sentimenduak...

-Helduentzako ipuin kontaketa: A vida o muerte.

-Neurrira egindako lanak: Mundu berri. Nol?, Iparra eta Hegoa, Merkataritza...

-Saio musikatuak: Ipuinak dantzan.

apikabilbao.com

genuen. Ni antzerkigintza ikasten ere hasi nintzen. Gero, bakoitzak bere bidea hartu zuen eta ni bakarrik geratu nintzen Leire Basarrarekin, garai hartan kontratatuta genuena. Apika taldea 2003an sortu genuen eta ikuskizun berriak prestatu behar izan genituen.

Hiru saio mota egiten duzue Apika taldean. Monda eta Lironda pailazoak, ipuin kontaketa eta neurrira eginiko antzezlanak.

Monda eta Lironda pailazoekin antzezlanak ditugu, guztietan antzeko egitura aurkezten dugun arren: sarrera, pertsonaien aurkezpena, arazo baten aurkezpena eta arazo hori zelan konpondu. Horretarako, laguntza eskatzen diegu ikusleei. Umeek oso erantzun ona izaten dute; "onegia" batzuetan, eta jakin behar duzu zelan eraman. Zaila da batzuetan. Lan aproposak dira euskara lantzeko, izan ere, asko hitz egiten dugu ikusleekin, eta haiek ere erantzun behar izaten digute.

Balioz betetako lanak ere badira.

Azken batean, zuk, pertsona moduan, baduzu zeure filosofia, pentsatzeko era... eta horrek badu bere isla egiten duzun guztian. Gainera, guk ez dugu jaberik gauzak nola egin behar ditugun esaten digunik. Nire ustez, batez ere errespetua eta tolerantzia landu behar dira. Balio garrantzitsuenak dira, beste guztiak haiekin lotuta daudelako.

Nondik hartzen dituzue ipuin kontaketarako ideiak?

Ikerkuntza lana egiten dugu; liburutegietan, esate baterako. Album irudidu-



*“Helduok ipuinak
entzuteko ohitura
galdu dugu,
zoritxarrez”*

nak gustatzen zaizkit neuri, hitz gutxikoa. Gero, zuk, kontalari moduan, jakin behar duzu istorioa zureganatzen eta zeure erara moldatzen. Nik ipuina hartu eta moldatu egiten dut, neure filosofia, ideiak, gauzak... sartuz eta estereotipoak albo batera utziz.

Monda eta Lironda pailazoan istorioak asmatzea baino askoz errazagoa izango da, ezta?

Bai, jakina. Ipuin saioa egiten dugunean, hiru ipuin-edo hartzen ditugu oinarritzat eta, oso berritsuak garenez, ba, saioa erdi eginda daukagu. Gero, pixkanaka-pixkanaka joaten da saioa sortzen. Pailazoan lan berriak sortzea, berriz, zailagoa da ordubetea gauza edo elementu asko sartu behar direlako. Gainera, guk ez dugu ez zuzendaririk, ez gidolaririk... eta dena geuk egin behar dugu. Orain ikuskizun berri bat prestatzen nabil eta oso lan motela da. Ideiak handik eta hemendik hartzen dira, baina batzuetan ez dakizu haiek zelan lotu, zelan islatu buruan duzuna.

Neurrira egindako lanak egiten dituzue gobernu kanpoko erakundeentzat, kanpaina zehatzetarako... Zuen sormena mugatzen dute haiek?

Ez, askoz errazagoa da, gaia emanda daukazunez, sormena eta ideiak berez azaltzen direlako.

Eta zelan portatzen dira ikusleak? Aretoetara joaten dira?

Lekuen arabera. Herri batzuetako programek edo saioek ondo funtzionatzen dute eta ume asko batzen dira bertan. Beste herri batzuetako saioetan, berriz, oso ume gutxi azaltzen dira. Batzuek umeek eskolaz kanpoko ekintza asko dituztela ipintzen dute aitzakiatzat, baina, nire ustez, badira horretan eragina duten beste faktore batzuk; esate baterako, saio gehiegi antolatzea eta, ondorioz, umeak eta gurasoak gogaituta egotea, edo saioen zabalkuntza eta publizitatea behar den moduan ez egitea.

Batez ere pertsona

Ana Rodriguez Gonzalez, 47 urtekoa, Larrabetzura bake bila etorri zen bilbotarra. Pedagogoa, pailazoa, ipuin-kontalaria eta aktorea. “Baina batez ere pertsona”. Pedagogia ikasi zuen eta Hezkuntza Orientazioan espezializatu zen, eta ondoren astialdiko begirale ibili zen. Gauza batek beste batera eraman zuen eta antzerkigintzan sartu zen. Harrezkero, ikastaro pilo bat egin ditu Estatuan zein Euskal Herrian: klown, antzeppen teknikak, kontalaritza, zirkuo teknikak eta sormenerako hezkuntza, banaka batzuk besterik ez aipatzearren. “Heziketa etengabeko lana da, ez da inoiz amaitu behar. Izan ere, heziketa jasotzen den heinean zabaltzen da zeure ikuspuntua eta joaten zara gauzak handik eta hemendik hartzen. Eta ondorioz, zure curriculum osatzen. Dena dela, ni oso kuxkuxeroa naiz, betidanik. Gauza berriak gustatzen zaizkit eta horregatik naiz pertsona zabala”.

Eskarmentu handia du agertokian, 25 urte zituela Hiruki taldea sortu zuelako beste kide birekin batera; eta 2003an Apika antzerki taldea Leire Basarrate-rekin. Haren izen artistikoa, Ana Apika, handik dator. “Antzerkigintzan beti ibili behar zara lanean; osterantzean, gelditu egiten zara. Denbora pilo bat inbertitu behar da, baita dirua ere. Saiorik ez dagoenean, proiektuak landu behar dira”. Begi bistan dagoenez, eta berak aitortu duenez, gustura baino gusturago dabil bere ogibidean. Gizonen presentziak nabariagoa izaten jarraitzen duen ogibidea da. “Klown ikastaroetan, esate baterako, askoz emakume gehiago izaten gara, baina gero haiek dira eszenatokira igotzera animatzen direnak”. Lehen zein gaur egungo hezkuntzari lotutako jarrera da. “Saioetan ere ikusten da. Askotan neskak akuilatu behar ditugu, haiek ere parte har dezaten”.



Eta helduei dagokienez?

Beno, helduentzako saio bat bakarrik daukat eta hura hiru aldiz baino ez dut taularatu. Haietako batean, 60 lagun inguru batu ziren eta hori oso kopuru ona da; 20 biltzen badira ere, kopuru ona da. Hala ere, helduok galdu dugu geure kulturari ipuinak entzuteko ohitura, zoritxarrez. Umeentzako gauzak direla uste dugu eta zaila da iritzi aldaraztea eta buruan sartzea helduontzat ere badirela. Beste gai batzuekin, noski. Helduontzako ipuinak kontatzeko lekuak sortu edo lehen zeudenak –oso gutxi, gainera– berreskuratu egin beharko lirateke.

Beste errebindikazioaren bat sektorerako?

Aintzat hartzea, zu kontratatu eta askotan ez direlako saioa ikustera joaten, eta ez dakite ondo edo txarto atera den. Gainera, askotan bakarrik topatzen duzu zeure burua, eta zuk zeuk atondu behar duzu lekua. Edo giltzen bila beste leku batera joan... Publizitate egokia ere egin beharko ligukete, helduentzako antzezlanetan egiten den moduan, ikuskizunaren eta aktoreen izenak adieraziz. Askotan en-



tzuten da: "Beno, badakizu, umeentzat de-
nez...". Bada, ez, inondik inora ere ez.
Umeek ere begirunea eta kalitate oneko
saioak merezi dituzte, eta haiek behar den
moduan zabaltzea.

Helduentzako beste ipuin saio bat eta Monda eta Lironda pailazoan ikus-

kizun berria proiektuztat dituzula aurreratu diguzu lehen. Besterik?

Gauza pilo bat. Adibidez, badut saio
bat piano-jole batekin, eta berarekin
beste egitasmo bat egiteko asmoa dut.
Haurtxoei zuzendutako zerbait ere egin
nahi dut.

16-17 IKASTURTEA

MAILAK
-Habeko Curriculum berriko Azpimaila guztiak
-Beharriazetara egokitutako taldeak:
Osakidetza, IVAP, gurasoak,
hezkuntza, mintzamena

NORENTZAT
-16 urtetik gorakoentzat

ERRITMOAK
-Astean 10/7, 5/6/5... ordukoak
-Urritik ekainera
-Autoikaskuntza ikastaroak-BOGA

MATRIKULA ZABALIK
-Irailaren 1etik 23ra

DIRULAGUNTZAK ETA HOBARIK
-Langabetuentzako beren beregi diruz lagundutako ikastaroak

Matrikula zabalik

**TXORIERRIKO UDAL
EUSKALTEGIA**

Herriko Plaza, 3 - DERIO Tel. 94 454 00 62 - Fax. 94 454 27 38 euskaltegia.txorierri@bizkaia.org

a: Idoia de Andrés

“Aurten esfortzu berezia egin gura izan dogu Emeteriak bultzatzeko, normalean jente gitxi hurbiltzen dalako. Ez gagoz ziur hori zergaitik dan. Goikoelexalden egiten diranez eta hori herritik apur bat urrun dagoanez, beharbada jentea ez da animetan. Gainera, nahiko berandu egiten dira, irailan, eta jentea oporretatik etorri barria da eta, beharbada, ez dau jaietan murgiltzeko gogo handirik”, esan deuskue antolatzaileek.

Horretaz aparte, nobedade gitxi ekarriko ditu aurten Larrabetzuko jaietako egitarauak. Halanda be, antolatzaileek esan deuskuen moduan, eskaintza zabala eta erakargarria presatu dabe. “Jaietan adin guztietako lagunek parte-hartzea gura dogu, hau da, gazteek ez eze, nagusiek eta umeek be bai. Larrabetzuko jaiak beti dabe herri kutsu hori, eta horrela, ahalik eta herriko alkarte eta lagun gehien erakarten ahalegintzen gara. Jente askok abuztuan hartzen ditu oporrak, baina horrek ez dauka jaietan garrantzi handirik. Izan be, horreetan parte-hartu gura daben larrabetzuarrak hemen egoten dira”.

Egitarauak eskaintzen dituan ekintzei jagokenez, futbol 7 txapelketeak hasiera emongo deutse Andramari jaiei, abuztuaren 12an. Txapelketak kategoria bi eukiko ditu –14 urtera artekoak eta 14 urtetik gorakoak– eta kategoria bietako kanporaketak egun horretan jokatu dira. Futbolak hurrengo egunean be jarraituko dau, finalurrekoak eta finalak jokatu diralako. Ostean, Futbol Txapelketaren sariak banatu dira eta herri-afaria egingo da. Ohikoa danez, Kantuke lehiaketan parte hartzen daben herriko musikariek eta kantariek euskeraz girotuko dabe gaua.

Kirola abuztuaren 14an be izango da protagonista. Goizean pala jaialdia antolatuko dabe, eta han luxuzko jokalariek ibiliko dira: Fusto argentinarra kartelaren

“Jaietan adin guztietako lagunek parte-hartzea gura dogu, hau da, gazteek zein nagusiek”

Emeteriak bultzatzen

Intxurreta batzordeak antolatu ditu Larrabetzuko jaiak, Udalaren laguntzagaz. Abuztuaren 12tik 16ra bitartean Andramariak ospatuko dira; abuztuaren 24an, San Bartolome; eta abuztuaren 30etatik irailaren 1era bitartean, Emeteriak, Goikoelexalde auzoan. Aurten azken horreek bultzau gura ditue bereziki, hara jente gehiago hurbiltzeko.



LARRABETZUKO
Udala

www.larrabetzu.eus

☎ | 944 557 027 · 944 557 009
✉ | udala@larrabetzu.eus

 *Udaletxea*



IRUSTA TABERNA
EGUNEROKO MENUK
GIZEZ / MUSIKA ETA PARRANDA

Gazte Egunean eta jailetan etxean gura doguz

LARRABETZU
Tel.: 94 455 84 77


Moro's Pub


SAGAROTZEA
ANKAPAZU



LARRABETZU
☎ 94455 81 97
LOROÑO BEHEKOA
(BIZKAIA)



**POLITENA
TABERNA**

Andra Mari
Larrabetzu, Bizkaia
tel.: 94 455 84 07


Jai euskaldunak
opa dizkizuegu

arrekikili
arrekikili

Larrabetzuko euskara elkarteak


ETORKI TABERNA

Eguneroko menua
Asteburuetan menu bereziak

Andra Mari Kalea, 1
Telf.: 94 455 81 95

48195 LARRABETZU
(Bizkaia)



**LARRABETZUKO
BATZOKIA**

Eguneroko zein asteburuko menuak
Menu bereziak

Askatasunaren enprantza, 3
94 455 72 94



Pala jaialdia egingo da eta bertan Pablo Fusto eta Imanol ikusteko aukerea eukiko dogu

burua da eta beragaz batera Imanol, Ibai eta Necol ikusteko aukerea be eukiko dogu. Jaialdia osatzeko, Olarreta herriko alkartearen neskek, Olatz Arrizabalagak, Irati Saezek, Maialen Rodriguezek eta Ane Villanuevak partida bat jokatu dabe. Baina hori ez da kirol ekitaldi bakarra izango, arrastirako triatloi herrikoia antolatu dabelako. Eguna borobiltzeko, Txokoan alkarteak txupinazoa botako dau, kalejirea egingo da, suzko zezena aterako da eta Laket taldeak erromeria eskainiko dau.

Abuztuaren 15ean, kalejira batek izartuko dau herria eta, eguerdian, Beñat Ugartetxeak eta Etxahun Lekuek bertsoak botako ditue herritarrek egindako pintxoak dastatzen diran bitartean. Arrastian, Gorritiren animaliak disfrutau eta gero, karrozen ibilpidea egingo da eta, gauean, elektrotxarangea. Hurrengo egunean, jai zaleek pijama jantzita bukatuko ditue Andramariak. Goizean, umeentzako puzgarriak, kalejirea eta zumba saioa antolatu dira eta arrastian, umeentzako bazkaria eta sukalki txapelketea. Ostean, baita sokamuturrea, antzerkia eta dantza lehiaketea be. Amaitzeko, Tximeleta taldeak erromeria eskainiko dau.

Emeteriak

Baina Larrabetzun, jaiak ez dira amaitzen Emeteriak etorri arte. Aurretik, abuztuaren 24an, San Bartolome jaiak egiten dira. Goizean, igoera egingo da San Bartolomera, zelan ez, eta arrastian, paella, briska eta urkaritxu txapelketek osatzen dabe jai-egitaraua.

Abuztuaren 30etik irailaren 1era bitartean, Emeteriak ospatuko dira. Jaiak animetako helburuagaz, ekitaldi gehiago antolatu dira aurten, betiko marmitako, mus eta briska txapelketakaz batera. Esate baterako, abuztuaren 31n, Bizkargi herriko dantza taldeak erakustaldi bat eskiniko dau. Gainera, irailaren 1ean, Goloka taldeak antzerki saioa taularatuko dau eta The Rock and kids Band taldeak rock kontzertu didaktiko bat emongo dau.

ANDRA MARIAK

Abuztuak 12, barikua

-17:30: Futbol 7 txapelketea. Kanporaketak, 14 urte artekoak eta 14 urte-rik gorakoak. Izena emotea: igerilekuetan edo intxurretajaibatzordea@gmail.com helbidean, abuztuaren 9a baino lehen.

Abuztuak 13, zapatua

-17:00: Futbol 7 txapelketaren finalurrekoak eta finala.

-20:00: Herri afaria + Futbol 7 Txapelketearen sariak banatzea. Ekarri etxetik jateko erabilteko tresna berrerabilgarriak.

-22:30: Kantuke: herriko musikariak eta kantu lehiaketea. Banaka, taldeka, zuzenean, play back... Euskeraz.

Abuztuak 14, domeka

-12:00: Pala jaialdia. Profesional mailan: Fusto-Ibai Vs. Necol-Imanol. Zaletu mailan: Olarreta herriko taldeko neskak: Olatz Arrizabalaga-Irati Saez Vs. Maialen Rodriguez-Ane Villanueva.

-18:00: Triatloi herrikoia, banaka. Izena emotea: igerilekuetan edo intxurretajaibatzordea@gmail.com helbidean, abuztuaren 9a baino lehen.

-20:00: Txupinazoa, herriko frontoian, Txokoan alkarteagaz batera. Herriko trikitilari, txistulari, Akermari, Paskuala eta Matxingegaz.

-23:00: Suzko zezena.

-00:30: Erromeria, Laket taldeagaz.



Jai-egitaraua

Abuztuak 15, astelehena

- 12:00: Kalejirea, txistulari, Akermari, Paskuala eta Matxinegaz.
- 12:30: Bertsopintxo saioa, Beñat Ugarte-
txea eta Etxahun Lekue bertsolariakaz.
Ostean, herritarrek egindako pintxoak
dastatzea.
- 12:30: Fanfarrea, Dunbots taldeagaz.
- 17:00: Gorriti eta bere animaliak. Plazan.
- 19:30: Karrozak.
- 22:30: Elektrotxarangea.

Abuztuak 16, martitzena. Pijama gaua

- 11:00: Kalejirea, txistulari, Akermari, Pas-
kuala eta Matxinegaz.
- 11:00: Umeentzako puzgarriak.
- 13:00: Zumba saioa, plazan.
- 14:00: Umeentzako bazkaria.
- 14:30: Sukalki txapelketea.
- 19:30: Sokamuturra.
- 21:30: Antzerkia, Tiritirantes taldeagaz.
Ostean, dantza lehiaketea.
- 23:00: Erromeria, Tximeleta taldeagaz.

SAN BARTOLOME

Abuztuak 24, astelehena

- Goizean, igoera San
Bartolomera.
- 14:30: Paella Txapelketea.
- 17:00: Briska Txapelketea.
- 17:30: Urkaritxu Txapelketea.

EMETERIAK (GOIKOELEXALDE)

Abuztuak 30, martitzena

- 12:30: Kalejirea eta txupinazoa.
- 14:00: Marmitako Txapelketea.
- 17:00: Mus Txapelketea.
- 19:00: Igoera Barrenetxera.
- 21:30: Kontzertua: Drindots.

Abuztuak 31, eguaztena

- 12:30: Kalejirea, Akermarigaz,
Paskualagaz eta Matxinegaz.
- 13:00: Herri kirolak.
- 17:00: Briska Txapelketea.
- 18:30: Idi-probak.
- 19:00: Euskal dantzak, Bizkargi
alkartearen eskutik. Ostean, txa-
rangea.

Irailak 1, eguena

- 12:00: Jokoak, Kulkiren eskutik.
- 17:30: Antzerkia, Goloka taldea-
gaz.
- 19:00: Rock kontzertu didakti-
koa, The Rock and kids Band tal-
deagaz.



FOTERI TABERNA



Andra Mari Kalea, 22
Teléfono 455 80 98

48195 LARRABETZU-Bizkatoa



Ondo para jaietan!

INES
JANARI-DENDA

Iturrikoetxea, 3
48195 Larrabetzu
T: 94 455 84 33



SARRIKOLA
OGITEGIA

Euskal pastela
Basernko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

Jenteak kalera urten daien!



Lezamako Gailur mendi taldeak 25 urte bete ditu eta pregoia bere kideek botako dabe irailaren 2an. Handik aurrera, lezamarrek makina bat ekitaldi izango ditue eskura, Andra Mari jaiez eta udako azken egunez gozau ahal izateko.

a: Gaizka Peñafiel

Basobaltz Lezamako jai-batzordeak igaz lortutako helburuari jarraipena emotea hartu dau aurten be helburutzat: jenteak kalera urten eta antolatutako ekintzetan parte hartzea, giro aparta sortuz. Horretarako, adin guztientzako ekitaldiak prestaten ahalegindu dira. "Txikienei zuzendutako puzgarriak eta antzerkiak, nagusientzako mariachiak, antzerkiak eta bazkaria; eta herritar guztientzat antolatutako bazkaria, jatsiera eta kontzertuak".

Jai-egitaraua osatzeko orduan, ohiko eskemeari jarraitu deusie. "Txupinazo egunean, poteoa elektrotxaragagaz; haurrentzako puzgarriak, zapatuan; kale-antzerkiak; Zorribike eta Lezamako Mugetatik taldeen lasterketak; Ekidazu abesbatzearen kontzertua...". Era berean, era

bagi dabe igaz lehen aldiz antolatutako ekintzak berrero egitea, erabat arrakastuak izan ziralako. "Mozorro jatsieran, esate baterako, 30 kuadrillak eta taldek hartu eben parte, giro itzela sortuz. Aurtengo gaia musikea izango da. Herri bazkariak be oso ondo urten eban eta bertan 300 lagun inguru batu ginan. Oxabi taldeko lagunek bazkalostea girotuko dabe aurten".

Ohiko eskemez eta igaz ondo funtzionau eben ekintzez aparte, Lezamako Andra Mari jaiek nobedadeak be ekarriko deuskuez. "Orain dala urte bi frontenis txapelketea egin zan, baina igaz ez genduan antolatu. Jentea kexatu zan eta horregaitik berreskuratuko dogu. Beste barritasun bat domeka arrastirako prestau doguzan ekintzak dira: harri-jasotzaileen, aizkolarien eta trontzalarien erakustaldia, eta mariachien kontzertua. Gure helbu-

*Nobedadeen artean,
mariachiak eta
bertso-pintxo-poteoa
egongo dira*

rua domeka arrastirari bizitasuna emotea da. Akabuan, irailaren 8an, Andra Mari egunean, egongo dan bertso-pintxo-poteoa be barritasuna da".

Jai-batzordetik adierazo deuskuena-aren arabera, kontzertuetan apur bat arriskatu dira eta talde nagusi moduan Green Valley taldea ekarriko dabe. "Estilo ezbardineko musikea proposatzen dabe regaegaz, eta Lezaman musika hori ez da oso ohikoa. Halanda be, uste dogu jenteari gustauko jakola. Barikuan, Dekot tal-

BOLALEKU
JATETXEA

10. URTEJARRERA

Garaioltza, 1 - LEZAMA
94 455 41 10
Jaiak
Facebooken

- Hainbat menu
- Karla
- Ospakizunak
- BOLAPARK

Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioltza, 74
48196 Lezama

TABERNA
GAZTE
DI

Eguneko menuak
Ospakizunak

Arebalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com



Parte hartu
gure jaietan



Ayuntamiento de
Lezama ko Udala

jaiak euskaraz bizi!

RENOVE PLANA

Diru-laguntzak, leihoak aldatzeko

Atzeraeraginezko izaera
izapide guztiak, geure esku

! Aukar berrak, diru-laguntzak
iragaztuak dira eta



PERSIANAS Y
GORDONIZ

ADITUAK, PERTSIANA ETA LEIHOETAN

6 hilabeterako finantzaketa, interesik gabe

Gordoniz 97, 48002 BILBAO ☎ 946 034 689 – 678 054 887

www.persianasgordoniz.com 🌐 info@persianasgordoniz.com 📱 Persianas Gordoniz

LA
GUN
KOR

AHOEKULARRITZA FISKALA LABORALA KONTABLEA
ZERBITZU BULEGOA

aretxalde, 68 - 48196 lezama
t. 944 556 538 - faxa 944 555 084
lagunkor@hotmail.com

ZORRIZKETAN
LEZAMAKO EUSKERA ALKARTEA

EUSKARAZ BIZI JAIK



BATA BESTEAGAZ LEZAMARROK EUSKARAZ
Tel.: 94 455 60 76

HARRI-BILBO



HARGINTZA OROKORRA

LEHIO-ERTZEKO HARRIAK - KANTO HARRIAK - BARLASAIK - MAILAK
ARKUAK - TXIMINIAK - HARRI-HORMITUAK - XAFLA-LANAK

HABROBIA: DURANDON
E-mail: recupresaharribilbo@euskalnet.net

LANTEGIA:
Kurtzea Industrialdea, z/g • 48196 LEZAMA
☎ 94 452 10 71

ERAKUSTONIA:
Itxaropena, 2 • 48100 MUNGIA
☎ 94 674 33 40



OXANGOITI

Kutur Elkarte **TABERNA**

Aretxalde, 54 - tel.: 94 455 50 37
LEZAMA



Jai-batzordeak apur bat arriskatu eta Green Valley taldearen reggaegaz ausartu dira

dea egongo da. Talde horrek Euskadi Gaztea irratiko maketa lehiaketeta irabazi barri dau eta BBK Live jaialdian jo dau. Aitatutakoez gainera, erromeria eta bertoko taldeak be ez dira faltako”.

Gonbitea

Jai-egitarau oparoa antolatu dabe, beraz, gustu eta adin guztiei zuzendutakoa. Ekintza guztiak dira erakargarriak eta kontuan hartzekoak, baina bereziki baten bat azpimarratu behar izanez gero, jatsiera eta herri bazkaria azpimarratuko lekiez. “Igazko arrakastea ikusita, aurten harrera bera espero dogulako. Barritasunek zelan funtzionaten daben be ikusi gura dogu, gure ustez, ekintza politak diralako bertan herritarrek parte hartzeko”. Jai-guneari jagokonez, ez da aldaketa handirik egongo. “Azken urteotako taldeek ipiniko dogu txosnea, eta, betiko moduan, karpea izango da badaezpadan”.

Basobaltz jai-batzordea oso lagun gazteek osatzen dabe eta aitatu deuskuen moduan, ez legoke txarto taldeagaz adin ezbardinetako herritarrek bat egitea, “ikusuntu ezbardinak izateko. Baina jentea gitxi animaten da”. Edozelan be, aitortu dabe gero, ekintzak egiteko orduan, laguntza handia jasoten dabela bai herriko alkarteetatik, bai lezamarrengandik. “Herri bazkaria, adibidez, ezin izango genduke hareen laguntzarik gabe aurrera atera”. Horren haritik, jai-batzordeak bertan parte hartzeko gonbitea luzatu deustse herritar guztiei. “Nahiz eta bilera guztietara ezin etorri, gu idea barriak jasotzeko zabalik gagoz”.

Irailaren 2tik 10era bitartean ekitaldi sorta zabala eukiko dogu Lezaman, baina jai-giroa ez da etengo eta hurrengo egunetan Kurtze auzora mobiduko da. Izan be, irailaren 14tik 17ra jaietan egongo dira han. Besteak beste, herri kirolak, kalejirak, erromeria eta lehiaketa gastronomikoak antolatu dira egun horreetarako.

Abuztuak 28, domeka

-08:30: Lezamako Mugetatik XI. mendi martxea.

-10:00: Lezamako Mugetatik XI. lasterketa eta martxa txikia.

Irailak 2, barikua

SAN ANTOLIN AUZOAN

-12:30: Mezea. Ostein, kopaua, trikitilariak girotua.

-14:00: Azken ordua, bazkarirako txartelak erosteko (3 € aldezturik, 5 € egunean bertan).

-14:30: Herri bazkaria (paellea), Lezama Saretzen alkartearen laguntasunagaz).

HERRIAN

-19:00: Koadrilen jatsiera, Mikel Zarate enparantzatik. Elektro Txufila elektrotxaranga girotua.

-20:00: Pregoia eta txupinazoa, Lezamako Gailur Mendi Taldearen eskutik.

-20:00: Andra Mari Pelota Txapelketaren finalerdia.

-20:15: Poteoa herriko tabernetatik, Elektro Txufila elektrotxaranga girotua.

-22:00: Txosnak zabaltzea.

-22:00: Umeen moztorro lehiaketako sariak banatzea.

-22:00-00:00: Mozorrotuta datozenentzat 2 x 1 katxietan (garagardoa eta kalimotxo) eta alkohol bako edarrietan.

-23:30: Kontzertuak: Egarrri + Dekot + Garilak 26.

-01:00: Nagusien moztorro lehiaketako sariak banatzea.

-Jatetxe eta tabernetan, odolosteak afaltzeko.



**LEZAMAKO
BATZOKIA**

KAXOLAK
ANOAK
OGITARTEKOAK
HANBURGESAK
PLATER KONBINATUAK
PINTXOAK
ENKARGUZKO MENUAK

ETXERA ERAMATEKO ERE EGITEN DITUGU!

Garaioltza 120, Lezama
Tel. 946552749

**BASALBEITIKO
TXAKOLINA**

Bizkaiko Txakolina
Denominazio Jaiarrazitua

**Goitioitza auzoa, 37
(LEZAMA)**
94 455 61 46

LAPIKO/s.l.
Ekoizpen eta materialak - Dekorazio

Bº. Garaioltza, 47 - 48196 LEZAMA (Bizkaia)
Tlf: 94 455 63 98 - 94 455 64 01 - Fax: 94 455 63 98

Jai-egitaraua

Irailak 3, zapatua

- 11:00-14:00: Umeentzako puzgarriak.
- 13:30: Poteo musikatua, herriko tabernetatik. Oxabi taldeagaz.
- 14:30: Jubiladuen bazkaria.
- 14:30: Herri bazkaria, Estankoaren eskutik. Txartelak, dendetan eta tabernetan salgai: 12 €. Erosteke azken eguna: abuztuak 31.
- 16:00: Kantaldia, Oxabi taldeagaz.
- 16:30-19:30: Umeentzako puzgarriak.
- 19:30: Kale-antzerkia: *Walkman*, Ganso & Cía taldearen eskutik.
- 22:00: Txosnak zabaltzea.
- 23:30: Kontzertuak: Eskean Kristo + Green Valley + Dj Bull.
- Jatetxe eta tabernetan, odolosteak afaltzeko.

Irailak 4, domeka

- 09:30: IX. Andra Mari MTB Lasterketa, Zorribike taldeak antolatua.
- 12:30: Mezea. Ostein, Ekidazu abesbatzaren eta Koro Gallego Eixil abesbatzaren (Cedeira) emonaldia.
- 18:00: Aizkolari, trontzalari eta harri-jasozaileen erakustaldia.
- 20:00: Mariachiak.

Irailak 7, eguaztena. Odoloste Eguna

- Jatetxe eta tabernetan, odolosteak afaltzeko.

Irailak 8, eguena. Andra Mari Eguna

- 12:30: Mezea.
- 18:00: Umeentzako kale-antzerkia: Hor konpon Marianon. Plazan.



- 19:00: Frontenis Txapelketako finala.
- 19:30: Bertso-pintxo-poteoa, Fredi Paia eta Oihana Bartra bertsolariakaz.

Irailak 9, barikua

- 12:30: Mezea.
- 18:30: Lezamako Pelota Eskolako partidak eta Andra Mari Pelota Txapelketako finala.

Irailak 10, zapatua.

Bolalekuko jaiak

- 12:00: Kurutze dantza taldearen emonaldia.
- 13:00: Paella Txapelketan izena emotea.
- 14:30: Paellak aurkeztea eta sariak emotea.
- 16:30: Mus Txapelketa. Izena emotea, Goiko Tabernan (20 € bikoteka).
- 17:00: Umeentzako puzgarriak eta tailerrak.
- 19:30: Txokolatadea.
- 21:00: Erromeria, Nakar taldeagaz.

KURTZEKO JAIK

Irailak 14, eguaztena.

Santa Kurtze Eguna

- 12:00: Txupinazoa eta jaien hasiera.
- 12:30: Mezea. Ostein, kopaua auzokoz entzat.

Irailak 15, eguena

- 12:30: Mezea.

Irailak 16, barikua

- 20:00: Idi probak (pisu libre).
- 20:30: Kalejirea, auzoko tabernetatik. Kz taldeak girotua.
- 22:30: Diskofestea.

Irailak 17, zapatua

- Goizean, umeentzako tailerrak.
- 10:00: Mahaiak eta aulkiak banatzea (15 €). Txartelak erosteke azken eguna: irailak 14.
- 11:30: Sukalki eta Tortilla Txapelketetan izena emotea.
- 13:00: Kli-k txarangea.
- 14:00-14:15: Sukalkia eta tortillak aurkeztea eta sariak banatzea.
- 14:00: Umeen bazkaria (7 €). Txartelak Kurtzeko eta Lezamako denda eta tabernetan salgai. Azken eguna: irailak 14.
- Arrastian, umeentzako jolasak.
- 18:00: Kuadrillentzako herri kirolak.
- 20:00: Taberna Ibiltaria.
- 20:00: Afari-merienda eta herri kirolen sariak emotea.
- 21:00: Erromeria, Broken Izotz taldeagaz.
- 22:00: Sorgina erretzea, suak, txokolatadea eta jaien amaiera.



Baserritarren Alkartea Lezama S. Coop.

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

*Pentsu
naturalak*



Geure saskibaloiairen harrobia

t: Gaizka Eguzkitza

“Lauro ikastolan entrenatzaile nenbela, lagun batek laguntza eskatu zidan Gorondagane Sondikako eskolan taldeak osatu eta entrenatzeko. Saskibaloian esaten den moduan, errebotez sartu nintzen elkartean (kar, kar)”, dio Polentzi Soldevilla Txorierri Basketland elkartearen koordinatzaileak. Gazteak azaldu digun moduan, proiektua apurka-apurka hazi da. “Lehenengo bi urteetan talde mistoak osatu genituen, baina geroago gazte berriak sartu ziren eta talde gehiago egin ahal izan genituen. Txorierri badago saskibaloian jokatzeko prest dauden umeak, baina oso zaila da taldeak herriz herri ateratzea. Beraz, batzea erabaki genuen”.

Klubak harrobia landuko du. “Gure filosofia da Txorierriko jokalariek bultzatzea. Ez dugu kanpoko fitxaketa asko egin nahi, beste klub batzuek egiten duten bezala”. Gaur egun, elkarteak egitura

TXORIERRI BASKETLAND SK

Txorierri futbol eta pilotarako zaletasuna dago batez ere, baina, azken bolada honetan, saskibaloia gero eta garrantzi handiagoa hartzen dabil. Eta, neurri handi batean, Txorierri Basketland elkarteak egindako lanari esker. Klubak duela lau urte jarri zen martxan eta datorren urtean, 13 taldek hasiko dute denboraldia.

bi ditu: bata Gorondagane eskolaren izenpean, bestea, Txorierri Basketland izenpean. Lehenengoan, bost talde daude, eta bestean, zortzi. Jokalariek 6 urte-tik 13 urtera bitarteko neska-mutilak dira eta aurre-mini, mini eta haur mailetan jokatu dute. Aurten, nesken talde berri bat aterako dute senior kategorian eta horrek Lurralde mailan jokatu du. “Erreferentziatzeko talde bat izatea nahi dugu, batez ere beheko kategorietako jo-

kalarientzat. Izan ere, jokalariek batzuk talde gazteen monitoreak ere badira. Senior mailako taldea ere gaztea da, neska 17 urtetik 21 urtera bitartekoak direlako”.

Klubeko lagunak gogor ibili dira lanean, saskibaloia oinarriak gazteeni irakasteko. “Teknikazio arloan ordu pilo bat egin behar izan ditugu, talde batzuetan neska-mutilak hasiberriak direlako. Hau da, iaz futboleko jokatu zuten eta batzuek ez zekiten ezer gure kirolari buruz”. Beste ume batzuk, ordea, duela lau urte hasi ziren jokatu eta oso emaitza onak lortu dituzte. “Iaz mutilak Bizkaiko hirugarrenak izan ziren eta neska, bosgarrenak; eta aurten, mutilak, bigarrenak, eta neska, bosgarrenak berriro”.

Klubak aurrera egiten du eta, apurka-apurka, saskibaloia hedatzen ari da Txo-

“Gure filosofia da Txorierriko jokalariek bultzatzea. Ez dugu kanpoko fitxaketa asko egin nahi”

“Bailaran, apurka-apurka saskibaloia irenburuko ohitura sortu dugu. Eta horrek gure lana bultzatzen du”



Txapelketarik onenetariko

Txorierrri Basketland elkarteak zenbait ekintza antolatzen ditu, saskibaloia bultzatzeko. Esate baterako, uztailaren 11tik 15era bitartean, umeei zuzendutako campusa. Gainera, bigarren aldiz antolatuko dute txapelketa handi bat denboraldi aurrean. Irailaren 16tik 18ra bitartean, haur mailakoek jokatu dute eta irailaren 23tik 25era bitartean, mini kategoriakoek. Txapelketa Zamudio eta Sondikaren artean jokatu da eta, iaz moduan, goi-mailako parte-hartzaileak arituko dira: Pielagos (Kantabria), Askartza Claret (Leioa), Easo (Donostia), Iraurgi (Azpeitia), Baskonia (Gasteiz)... "Datozen urteotan, Real Madrid,artzelona edo Perfumerías Avenida (Salamancakoa eta Espainiako txapelduna) bezalako taldeak ekartzea gustatuko litzaiguke. Estatuko txapelketarik onena egin nahi dugu, geure mugak gainditzeko eta Txorierrin talde bat dagoela Andaluzian ere jakiteko. Horrek Zamudiora eta Sondikara ez ezik bailara osora ere ekarriko lituzke publizitatea eta mugimendua. Eta bide batez, saskibaloirako zaletasuna ere piztuko dugu", esan digu Polentzik.

rierritik. "Bailaran futbola eta batez ere Athletic nagusitzen da, baina azken bolarak honetan, ordea, buelta eman diogu egoerari eta apurka-apurka saskibaloia- ren inguruko ohitura sortu dugu. Eta horrek gure lana bultzatzen du, txukun lan egiten dugunaren seinalea da".

Arazoak

Nahiz eta lana ona izan, klubak arazo bi ditu. Alde batetik, materiala erosteko diru-laguntzaren bat eskertuko lukete. "Zeretik hasi gara eta ez dugu dirurik ezertarako ere. Eta gurasoei ere ezin diegu eskatu". Bestetik, taldeak entrena- tzeko eta jokatzeko lekua eta orduak be- har ditu. Normalean, Sondikako eta Za- mudio kiroldegietan aritzen dira, baina txiki gelditu zaizkie. "Sondikan ez dauka- gu leku handirik, bertan talde asko dau- delako. Hala ere, eskertzekoa da Udalak ematen digun laguntza, beste areto bat egokitu digutelako. Zamudion ere lagun- tzen digute".

Beste herrietan, aldiz, ez diete hain ondo erantzun. "Derioko kiroldegia masi- fikatuta dago; Loiu laguntzak ematen dizkio Gorondagane eskolari eta ezin die- gu gehiagorik eskatu; eta Lezaman eta Larrabetzun ez dago areto duinik saski- baloian jokatzeko. Momentuz, daukagu- narekin bermatzen diegu talde guztiei jokatzeko ordu nahiko izatea, baina tira...". Basketland elkarteak proiektu serioa da eta beste gauza bat bermatu ahal dute: Txorierriko saskibaloia- ren harrobia susta- tzen jarraituko dutela.

lezama
consultorio veterinario
albaitaritza klinika
www.consultorioveterinariolezama.com

J.R. Galdona Madariaga
BI-515

Medikuntza orokorra
Txertaketak
Parasitoak hil
Mikrotxipia
Kirurgia
EKG
Analisiak
Ospitalizazioa
Ekografiak

SERVICIO de urgencias
24h

94 455 56 19 Aretxalde, 21bis 48196 Lezama

Euskal jairik historikoena



α: IZAE

Ekainaren 25a oso goiz argitu zan Zamudion. Izan be, hango euskera alkar-teak, Lagatzuk, bere eguna ospatu eban egun horretan. Lagatzu Eguna-Euskal Jaia euskerearen eta herritarren ospakizuna da, eta horregaitik, oso ekitaldi parte-hartzaileak antolatzen dira. Aurten, herri antzerkia egin da.

Goizeko 9etatik aurrera mobimendu handia egon zan Kultura Etxean. Bertan, hainbat lagun batu ziran eszenatokia eta antzezlana prestetako. Josu Kamararen zuzendaritzapean, eta herritarraz batera, euskerea eta Zamudioko historia izan ziran antzerkiaren protagonistak. Halan, eszenetan banandutako ikuskizuna prestatu eban eta, besteak beste, industrializazioa eta emigrazioa, trena, Gerra Zibila

eta etorkizuna bezalako gaiak jorratu zituen.

Guztira, 250 lagunek hartu eban parte ikuskizunean: aktoreak, musikariak, dantzariak eta figuranteak. Herritarrek eta koadrilek ez ezik alkar-teek be eskini eban laguntzea: Bertoko, Hiru Bat, Zamudioko Kamara Korala, Elizalde Gurasoen alkar-tea, Gazte Estazinoa... Antzezlana-aren ostean, herri bazkaria egin zan, eta han inoz baino jente gehiago batu zan, 600 lagun inguru. Kopuru harrigarria, Zamudio 3.000 biztanleko herria dala kontuan hartuta. "Guztiek egin eban oso lan profesionala, eta, betiko moduan, herriaren inplikazioa goraiatzeko modukoa izan da. Ekitaldi guztiak Kultura Etxean, eskola zaharretan, egin ziran eta antzezlana-aren ostean eszenatokia kendu behar izan zan bazkarirako mahaiak-eta prestetako. Oso azkar egin zan, guztiek lagundu ebelako. Aurten be oso goian ipini dabe mugea", esan dabe antolatzaileek.

Bazkaldu eta gero, musikerearen txandea izan zan. Taberna Ibiltaria taldeak erromeria eskini eban eta publikoa animau zan bai eserlektutik, bai eszenatokitik betiko kanta abestera. Umeei zuzendutako jokoak be egon ziran arratsaldean zehar. Musikak Trikizio taldearen eskutik jarraitu eban eta jaia ordu txikietara arte luzatu zan.





Ford **Goiri'78 s.l.**
Zerbitzu ofiziala



Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

auzoKide
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisoló 4, beheá B **634 410 470**
48150 SONDIKA auzokidefincas@gmail.com

Peñasko
arraindegia



Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

Ile-apaindegia



M^a Antonia Llodio ^{TXPI}

Txorenko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

ARINKA
KASTEGIA

Goiko kalea, 6 DERIO

LH - DBH - BATX.
INGELESÁ - MARRAZKETA
ERROBOTIKA
TAILERRAK / ESKOLA LAGUNTZA

944 544 753 **695 78 77 74**
www.arinkakopidenda.com arinkakastegia.blogspot.com

GALAISÁ *Elegabeko ordutegia*

Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51



Sabino Arana 1-3. SONDIKA



*“Ondo bizi nazala
esan beharko dot;
zer esango
dogu, ba?”*

egunez, abioiek. 1937ko ekainaren 13an preso hartu eta Olabarria baserrira, Lezamara, eroan ninduen; eta handik Gastizera, kartzelara. Eta handik Palentziara. Banderearen zina egin behar izan neban eta intendentziara sartu ninduen. Caceresera eroan ninduen, eta gero, Toledora eta Madrilera. Madrilen hilabete bi emon eta lizentzia nintzan, baina barrero deitu eusten sei hilabeterako. Valladolidera joan nintzan, intendentziara”.

Kirolik onena

Gerrea amaitu eta Lezamako zerrategian hasi zan lanean, eta gero, Asuakoan. “Bertan jubilau nintzan, orain dala 35 urte”. 1948ko ekainaren 12an Maria Luisa Bilbao ezkondu zan Larrana Goikoa baserrira, hareentzat aitagarrebak egingako etxera. “Eta hementxe bizi izan naz, pozik. Andra ona tokau jat. Orain dala 16 urte hil zan, 76 urte gaz. Eta akabuan be suertea euki dot alabe gaz. Beragaz eta suhinagaz bizi naz”.

Mende baten, aldaketa asko egon dira Lezaman eta munduan, eta German horreen guztien lekukoa izan da. “Behar egiteko modua, kasurako. Lehen, dana egiten genduan eskuz, dana zan “bruteria”, indarra. Pinuak eskuz hartu eta kamioira sartzen genduzan... Orain aurrerapen asko eta asko dagoz. Eta etxe asko eta asko be egin dira. Nik etxetik eta Geldoren arteko bidea oinez egiten neban, ordubete hara joateko, eta beste ordubete bat etxera etortzeko. Eta dana zan mendia. Etxera etorri eta ortuan egiten neban behar. Behi bat be bagendun eta ha be jagon behar... Dana pasau da ondo, baina behar asko eginda. Beharra kirolik onena da, gorputz osoa mugiten dalako: tira, ekin, aurrera... eta halan egun osoan”.

“Kirolaz” aparte, 100 urte bizitzeko sekreturik ez dagoala ziurtatu deusku. Germanek bere bizitza nasaiaz jarraituko dau, bere paseotxuakaz. “Trankil-trankil”. Izan be, bizitzen jarraitzea tokaten da. “Itxiten deusten arte”.

Ehun urteak betetako

GERMAN BUSTINZA | lezamarra

Lezamako Udalak babestua

Ekainean mobimendu handia egon da German Bustinzaren etxean. Izan be, lezamarrek 100 urte bete zituan hilaren 18an, eta, mende bat betetea oso gauza handia danez, senideez gainera, besteak beste, alkatea, Foru Aldundiko ordezkariak eta Adintsuen alkartearen ordezkariak joan ziran bere etxera, Larrana Goikoa baserrira. “Jente asko akordaten da nigaz”, esan deusku. Gizon ona eta jatorra dalako izango da, seguruenik. “Nik pentsetan dot baietz, baina kanpokoek esan beharko dabe hori”.

German 1916ko ekainaren 18an jaio zen Lezaman. Goiti txikia baserrikoa, zazpi anaia-arrebatariko nagusia da, eta gaur egun bizirik dagoan bakarra. Edoze lan be, bizitza luzeko familatik dator German, anaia-arreba gehienek 90 urte baino gehiago bete dituelako, edo 90 urte betetetik paraje egon diralako.

Oso bizitza nasaia daroa Germanek. “Ondo bizi nazala esan beharko dot; zer esango dogu, ba? Ohetik altzau eta pitin bat gosaltzen dot. Gero, ingurutik buelta bat emon eta deskantsau bazkaltzeko ordura arte. Siste egin eta beste paseo-

txu bat. Eta halan gauera arte. Jan be, neurrian; eta edan, gitxi”. Oraindino autoa gidaten dau, eta ondo konpontzen dala azaldu deusku. Alaba bakarra dauka, Mariasun, eta haren esanetan, urtero oso azterketa gogorak gairatu behar ditu gidabaimena barritzeko. “Ordu asko emoten ditu probak egiten, baina aprobau, aprobau egiten dau”.

Lehen, Adintsuen alkartearen egoitzara joaten zan kartetan egiten, halanda be, belauneko ebakuntzea egin eutsienetik ez da joaten. “Joan behar dodala esaten deuste; medikuak be. Baina, tira...”. Guztira zortzi ebakuntza egin deusiezala kontau deusku. “Begiak, aldakea, prostata... Eta hemen nago, ondo. Pieza barriak ipini eta aurrera!”.

Pozik bizi da German. “Hori bai, behar asko eginda, e!”. Eskolea 14 urte gaz itxi eban eta baserrian behar egiteaz gainera, kanpora be urtetan zan joraltzua aterateko. “Garia batzen, adibidez. Deriotik Geldora doan bidea egiten be egon nintzan, eta handik zoroetxera doan bidea egiten be bai”. Eta gerrea ailegau zan. “Hiru gau egin nituen Burdinazko garrikoan, faxisten kontra burrututzen. Francoren soldaduek gauetz eraso eben; eta

t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

Astia da opor-lorearen ezta, atsedean orduetan erle nahiz irakurle izateko; liburu luzea edo laburra, euskaraz sortua edo itzulia irakurtzeko.

Aurten, Euskadi Literatura Sarietako Itzulpen modalitateko epaimahaikide naizenez, hoguei liburutik gora irakurri ditut: bat 1.852 orrikoa: Santa Teresa Jesusena, *Idazlan guztiak*, Luis Baraiazarrak itzulia; beste bat, 1.017koa: *Ulises*, James Joycerena, Xabier Olarrak itzulia; eta laburrena 157 orrialdekoa. Zuri, irakurle, zein gomendatuko dizut? Txikiena, agian, kiloko txuleta baino pintxo-poteoa.

Atzerritik datozen turistei –eta erdararen munduan bizi direnei– gastronomia produktuez gainera, kultura ere eskaini ahal diegu; literatura ere esportatu behar baitugu. Horretarako, itzultzaileen premia dugu, euskaraz sortua ingelesez irakurtzeko, edo alemanez, edo espainolez.

Itzulpena zubigintza da –Basque Writing 12. zenbakitik hartu dut metafora hau– eta itzultzaileak kultura biren arteko zubigileak. Honetan, sariketek badute eragina, diruz nahiz errekonozimenduz itzulpengintza prestigiatzen dutelako.

Dena dela, itzulpenean beti galtzen da jatorrizko zeozer. Horrexegatik da harrigarria 1996an Espainiako Ministerio de Culturaren epaimahaiko nintzela gertatua. *Xolak badu lehoien berri* Bernardo Atxagarena –*Shola y los leones* itzulpena– saririk barik geratu zen. Horren arrazoia?

Udarako liburua

Euskararen mendiak, erdararen lautadak



Gaztelera mahaikideek prest zirela erdarazko itzulpena saritzeko, baina ez euskarazkoa, jatorrizkoa.

Azken batean, itzulitako zein liburu gomendatuko nizuke? Laburra, 157 orri-

koa: *Maleta*, Sergei Dovlatovena, Amaia Apaulazak itzulia.

Ea euskararen irakurketa menditsuan espainolezko lautadak baino Axularren goi-ordokiak aurkitzen dituzun!

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SANTI MAMI
ALBAITARITZA
Nerea Pedrosa Celp. 517
COOP. GANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

RUBEN
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA
Lehendakari Leizaola plaza, 3
48170 Zamudio
94 452 14 49

R P A
MAYORISTAS INFORMATICOS
ENPRESTARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA
Avda. Pinea 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

PATXI
KOOP
PATXI KOOPERATIBA ELKARTEA
Nabizteko plazara - Etxeare 4 48170 Zamudio (Bizkaia) - Tel 94 452 287 - info@patxi.coop - www.patxi.coop

ZAMUDIO
Loteria Nazionala
Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

Etxeko sukaldaritza

a: www.nomataengorda.com

Lebatzea idar-saltsan

t: Maite Lekerika

Osagaiak:

- 4 lebatz-solomo (200 gramotakoak)
- Perejil txikitua

Saltsea egiteko:

- Kipula bat (txikitua)
- Berakatz-atal 2
- 100 g idar (izoztuak edo freskoak)
- 6 koilarakada ardao zuri
- Koilarakada bi oliba orioa
- 300 ml ur

Prestetako area:

Eltze zabal baten kipulea eta berakatzak erregosiko doguz. Gatz apur bat botako dogu. Hamar minutu ondoren idarrak gehituko doguz eta surtan beste minutu bi gehiago eukiko doguz. Ardao bota eta bost minutuan eukiko dogu egosten. Ura bota eta beste minutu pare baten egosiko dogu. Irabiagailuaz krema bat egingo dogu. Lebatzea kreman sartuko dogu, perejila bota eta eltzeari eragingo deusagu. Beste lauzpabost minutuan eukiko dogu egosten.

Piper gorri-entsalada**Osagaiak:**

- Letxugea
- Piper gorriak (batzuk ongailua egiteko gordeko doguz)
- Kipula
- Berakatz
- Apioa
- Cherry tomatea
- Azukrea
- Baltamo ozipina

Prestetako area:

Letxugea eta apioa nahastuko doguz. Bestalde, kipulea eta berakatz txikituko doguz eta piper gorriak batera (juliana eran ebagia) erreko doguz orio apur baten. Piper gorria letxuga gainean ipiniko dogu eta orio errea gainetik botako dogu. Gorde doguzan piper gorriak, baltamo ozipina eta azukrea nahasi eta ongailua prestauko dogu. Cherry tomateak ipini daikeguz entsaladea apainteko. Ongailuagaz aterako dogu mahaira.



a: www.puravidalोजना.com



Sudoku

				5	7		8
	1				4		
	6			7		5	
						9	
			9				
		4	6				1
		1		8			6
	9	7	5				2
4			1				7

5	7	8	9	2	1	9	3	4
3	2	1	9	4	5	7	6	8
6	4	9	3	8	7	1	2	5
1	3	5	2	7	4	6	8	9
7	8	9	4	6	3	2	5	1
4	9	2	1	5	8	3	7	6
6	5	9	3	7	4	1	8	2
2	6	4	8	3	9	5	1	7
8	1	7	6	5	2	4	9	3

t o k
t a k

EGUNEKO MENUA
lehenengo platerra
bigarren platerra
postrea
ogia
edaria

9€

Bestorrene 5, Behaia 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

HAUR-MODA
TxIMELETA

Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku

Zainketa Bonikoa
Logopedia
Podologia
Kiroprasajea

clinica dental ZAINDUZ hartz klinika

Troñem etorbidea, 9 - Lonsa | Arteaga erakina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentazainduz.com | www.dentazainduz.com

Erakusketak

Sondika

- > Balkoi apainduak. Irailaren 12tik 29ra, Erakusketa Aretoan.



Derio

- > Felipe Manterola: baserri giroko gizar-teko argazkilaria. Irailaren 9tik urriaren 13ra arte, Kultur Birikan.

Hitzaldiak

Sondika

- > Mugikortasun jasagarria. Irailaren 22an, 18:00etan, Kultur Etxean.

Larrabetzu

- > Literaturaz berbetan: Peru Magdalena. Irailaren 22an, 19:00etan, Anguleri kultur etxean.

Ikastaroak

Sondika

- > Udal ikastaroetan izena ematea: irailaren 5tik 13ra.

Derio

- > Udal ikastaroetan izena ematea: irailaren 12tik 16ra, Kultur Birikan.

Zamudio

- > Udal ikastaroetan izena ematea: irailaren 23ra arte.

Lezama

- > Udal ikastaroetan izena ematea: irailaren 12tik 23ra arte, liburutegian.
- > Mindfulness. Izena ematea: irailaren 19tik 27ra.

Larrabetzu

- > Euskal dantzak, margogintza, patchwork, kirola... Izena emateko epea: irailaren 23ra arte, Anguleri kultur etxean.
- > Azalerako ipuinak eta irakurketa kluba. Izena ematea: irailaren 26tik 30era, Anguleri kultur etxean.
- > Euskara eskola. Izena ematea: irailaren 27ra arte, Anguleri kultur etxean.

Ikuskizunak

Zamudio

- > Umeentzako ipuin saioa. Irailaren 24an, 11:30ean, liburutegian.
- > Kale zinema, eskoletan. Abuztuaren 4an, 11n eta 18an. Inisitue Gazte Asanbladak antolatua.

Irteerak

Txorierri

- > Kilometroak eta Nafarroa oinez. Izena ematea: iraila, ohiko lekuetan.

Sondika

- > Herri martxa. Irailaren 24an, 10:30ean, Artebe kiroldegian.

Zamudio

- > Sierra Kantabria. Irailaren 18an, 8:00etan. Arroeta mendi taldeak antolatua.

- > Azpeitiko Trenbidearen Museoa. Irailaren 24an. Lagrunandre elkarteak antolatua.

Jaiak

Derio

- > San Migel. Irailaren 23tik 30era.

Zamudio

- > San Martin jaietako Kartel Lehiaketa. Lanak aurkeztea: irailaren 30era arte. Informazio gehiago: zamudiokoudala.net.

Larrabetzu

- > San Migel. Irailaren 29tik urriaren 2ra arte, Eleixetan.

Kirola

Zamudio

- > Zikloturista. Irailaren 17an, 09:30etik aurrera, Bidekoetxe parkean: lasterketa, mountain bike zirkuitua, bazkaria erromeria...

Musika

Larrabetzu

- > Domekak Hori Baien: Joseba Irazoki. Irailaren 18an, 18:30ean.

Bestelakoak

Derio

- > Derio Bizkaiko Batzar Nagusietan sartu zeneko 326. urteurrenaren ospakizuna. Irailaren 24an.

HARAGITEGIA
URDAXITEGIA
IMAZ

MUNGIALDE ETORBIDEA,2
TLFNOA: 94 454 10 75

DERIO

Eskerrik asko
etortzeagaitik

LEIRE BEGOÑA

ULE-APAINDEGIA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarri laguntza Facebooken

Nire Autoocasion NA

IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA

Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautoocasion.com info@nireautoocasion.com

OSTEOPATIA-ZENTROA
ORDEZKO TERAPIAK

Lasai

Luis M^o Asensio
Terapeuta naturopata

Larrabari, 1 lonja - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Saketekoa: 655 74 24 69
osteopatialasai@gmail.com

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK

Garbi-ikusiak, orokortzen
Auzokoen komunitateak
Mantutzeko garbi-ikusiak
Bulegok eta lokalak
Olinia emateko garbitzek
Basteroak
Zahar bitana

Besaide Plaza, 1 - B^o Aldekona
48160 DERIO (Bizkaia)
loregarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

Jatetxea **SAN ISIDRO**

FUSKO OKELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXeko GOROGINTZA APARUA

ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzua - Jantoki pribatua
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritzu tradizionala

Telefonoa 94 454 07 98
Fax: 94 454 14 18

Mungialde etorbidea, 25
48160 DERIO

Konekta zaitez gurekin!



f Facebook:
aikor.txorierrikoaldizkaria

t Twitter:
@AikorTxorierri

Webgunea:
www.aikor.com



ASESORÍA

Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurrezaga, 1
Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak

GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

aldeko ne hortz klinika

Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Urbe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

-Especialitate guztiak
zentro bakar batean
-Aurrekontua doan

-Especialitatea:
umeak

IRATXO

gozotegia

tarta pertsonalizatuak:
brulak,
feljak,
pastelak,
pastak

Mikel Zurro, 2 - 1. lonja - Sondika, 48150 - 94 643 89 79

izpilen

PARAFARMAZIA BELAR-DENDA

Sabino Arana, 3 lonja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - izpilen@gmail.com

Egin zaitez AIKOR!lagun



Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____

e-posta: _____

IBAN+Bankuko zenbakiak: _____

Urteko kuota: 30 euro _____ Beste bat _____

Aldizkaria jasotzen duzu? _____

Sinadura _____

Orri hau helbide honetara bidali:

AIKOR! Aldizkaria

Aresti kalea 2, behea - 48170 - Zamudio




15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordetako dira. Fitxategiaren erantzulea TOTODAN TXORIERRIKO ELUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuak kudeatuko ditu. Kontrakoa esaten ez diguzun bitartean, zure datuak kudeatzeko baimena dugula ulertuko dugu. Dena dela, edozein momentutan datuok eskuratu, balioagabetu eta zuzendu ahaliko dituzu. Horetarako, helbide honetara jo beharko duzu: ARESTI KALEA 2-BEHEA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).

BERTOKO

MUSIKA TRESNAK ETA KULTURA

2016/2017
IKASTURTERAKO
ESKAINTZARIK ONENAK

ALBOKA
TXALAPARTA
PANDERO ETA PALUAK
EUSKAL KANTAK
TRIKITIXA
DULTZAINA



Matrikulazioa BERTOKOren lokalean
Irailak 6, arratsaldeko 18:30etik aurrera (Tresna guztiak)
Klaseen hasiera: irailaren 12tik aurrera

ERDU ETA APUNTA ZAITEZ!



615 749 570
bertokozamudio@hotmail.com
www.aikor.com/txokoa/bertoko

